

Antzinako Erroma

Latina/Kultura Klasikoa, DBHko 3. eta 4. maila
Itziar García Soto
R400 ikastaroa
Artazugoikoa (IRALE), 2009-2010 ikasturtea, 1. txanda

Aurkibidea

0. Sarrera
1. Eremu geografikoa
 - 1.1. Erroma
 - 1.2. Italiar penintsula
 - 1.3. *Mare Nostruma*
2. Erromaren eremu historikoa
 - 2.1. Erromaren sorrerarekin lotutako kondairak
 - 2.1.1. Kondairak eta historia
 - 2.1.2. Nork idatzi zituen Erromaren inguruko kondairak?
 - 2.1.3. Nola sortu zen Erromako zibilizazioa?
 - 2.1.4. Nork fundatu zuen Erroma?
 - 2.1.5. Nola lortu zuen bizirik irautea?
 - 2.1.6. Nola sortu zen Errepublika?
 - 2.2. Erromaren historia
 - 2.2.1. Erroma baino lehenagoko herriak
 - 2.2.2. Monarkia-garaia
 - 2.2.3. Errepublika-garaia
 - 2.2.4. Inperio-garaia
 - 2.3. Erromatarrak hispanian
 - 2.3.1. Erromatarrak baino lehen
 - 2.3.2. Gerra Punikoak Hispanian
 - 2.3.3. Erromatarren aurkako erresistentzia
 - 2.3.4. Erromanizazioa
 - 2.3.5. Hispaniaren antolamendua
 - 2.3.6. Hispaniaren amaiera
3. Erromako gizartea eta erakundeak
 - 3.1. Erromako gizartea/Erromako gizarte-mailak
 - 3.1.1. Monarkia-garaia
 - 3.1.2. Errepublika-garaia
 - 3.1.3. Inperio-garaia
 - 3.2. Erromako politika-erakundeak
 - 3.2.1. Monarkia-garaia
 - 3.2.2. Errepublika-garaia
 - 3.2.3. Inperio-garaia
 - 3.3. Erromako armada
 - 3.3.1. Armadaren garrantzia
 - 3.3.2. Armadaren bilakaera
 - 3.3.3. Soldaduen bizitza
 - 3.3.4. Soldadu motak
 - 3.3.5. Borrokatzeko teknikak armadan
 - 3.4. Erromako zuzenbidea
4. Bizitza pribatua
 - 4.1. Familia.
 - 4.1.1. *Gensak* eta *pater familiasak*
 - 4.1.2. Familia eta senideak
 - 4.1.3. Familiaren errituak
 - 4.2. Senar-emazteak: ezkontza eta dibortzioa
 - 4.2.1. Ezkontzaren baldintzak
 - 4.2.2. Ezkontza motak

- 4.2.3. Ezkontzaren erritua
 - 4.2.4. Dibortzioa
 - 4.3. Emakumearen egoera
 - 4.4. Heziketa
 - 4.5. Hiritarren bizitza
 - 4.6. Aisia.
 - 4.6.1. Termak
 - 4.6.2. Gurdi-lasterketak
 - 4.6.3. Gladiadore-jokoak, *venationes*ak eta *naumakiak*
 - 4.6.4. Antzerkia
- 5. Erlijioa
 - 5.1. Ezaugarri nagusiak
 - 5.2. Erlijioaren bilakaera
 - 5.2.1. Hasierako erromatar erlijioa
 - 5.2.2. Errepublika-garaia
 - 5.2.3. Inperio-garaia
 - 5.2.4. Kristautasuna
- 6. Herri lanak eta hirigintza
 - 6.1. Nolakoak ziren erromatar hiriak?
 - 6.2. Etxebizitza motak: *domus*, *villae*, *insulae*
 - 6.3. Eraikin publikoak
 - 6.3.1. Tenpluak
 - 6.3.2. Eraikin zibilak: merkatua, basilikak eta kuria
 - 6.4. Bestelakoak
 - 6.4.1. Estolderia
 - 6.4.2. Akueduktuak
 - 6.4.3. Galtzadak
- 7. Latina eta literatura erromatarren garaian
 - 7.1. Latina
 - 7.1.1. Latinaren bilakaera
 - 7.1.2. Latina eta gainerako hizkuntzak
 - 7.1.3. Hizkuntza-maileguak
 - 7.2. Literatura
 - 7.2.1. Literatura-aroak
 - 7.2.2. Egile eta lan nagusiak
- 8. Bibliografia

Sarrera

Gero eta ikasle gutxiagok ikasten dute Latina eta Kultura Klasikoa, irakasgai oso interesgarriak izan arren. Hain ikasle gutxi direnez, batzuetan A ereduko ikasleekin batera ematen dira eskolak; orduan ezin da euskaraz azaldu. Hori guztia kontuan izanda, zenbait argitaletzek, ale gutxi salduko dituztelakoan, ez dute euskaraz argitaratzen irakasgai horietarako libururik, garestiegiak omen direlako.

Nolanahi ere, argi dago ikasmaterial falta nabaria dela: liburu batzuk aspaldikoak dira; beste batzuk, itzulpen hutsak. Hori dela eta, gehienetan, irakasleok denbora dexente ematen dugu informazio osagarria biltzen eta euskaratzen. Eta hutsune hori betetzeko ekarpena egin nahi dut.

DBHko bigarren zikloko irakasleei zuzenduta daude apunte hauek, hirugarren zein laugarren mailan erabiltzeko. 175/2007 Dekretuan, 2007ko urriaren 16koan, ikusten da Latinak eta Kultura Klasikoak elkarren antz handia dutela; izan ere, irakasgai ezberdinak badira ere, gai batzuk bietan ikasten dira. Horrela, Kultura Klasikoan (3. maila) 2. eta 3. eduki multzoetan jorratutakoa (*Erroma eta Hizkuntza klasikoak: kulturaren transmisoreak*) berriro ikusiko da Latinean (4.mailan), 2. eta 4. eduki multzoetan (*Mundu klasikoaren transmisiorako beste bide batzuk eta Latinaren historia eta bilakaera*). Horietako gai batzuk jorratu ditut *Antzinako Erroma* izeneko lan honetan.

Apunte hauek abiapuntutzat hartuta, irakasleak irakurmena eta ulermena lantzeko ohiko jarduerak presta ditzake:

- _ Gai jakin baten inguruko azalpenak eta galderak banatu, eta, ikasleek erantzun ondoren, zuzendu.
- _ Testu idatzia eman, eta eskema edo laburpena egiteko eskatu.
- _ Gaia ahoz azaldu, apunteak hartzeko eskatu, eta denon artean zuzendu.
- _ Taldeka, eskatu gai jakin baten inguruko horma-irudiak egiteko eta ikaskideei azaltzeko.

Horrez gain, teknologia berrien bidez zenbait jarduera antola daitezke:

- _ Webquesten bidez eskatu ikasleei ariketa errazak egin ditzatela horretan trebatzeko.
- _ Informazioa emanda, ikasleei eskatu PowerPoint aurkezpena egiteko eta gainerako ikaskideei azaltzeko.

Beraz, material honek bi funtzio beteko ditu: bata, irakasleak apunteak euskarri izatea; bestea, ikasleek esku artean apunte txukunak izatea.

Erromaren
eremu geografikoa **1**

1.1 Erroma

Dakigunez, Italiar penintsularen erdialdean, Lazioko (*Latio*) erdigunean eta Tiber ibaiaren bokaletik gertu sortu zen erromatar zibilizazioa.

Tiber oso ibai emaritsua eta lasaia zen bere bokalean. Muinoz betetako eskualde batetik zeharka-meharka zihoan itsasora. Askotan, ibaia gainezka etortzen zenez, ingurua urak hartuta geratzen zen; beraz, zaila zen bertan bizitzea, lekua oso zingiratsua zen-eta. Hala eta guztiz ere, muino horietako goiko aldean herri batzuk bizi ziren aspalditik.

Kristo aurreko VIII. mendean, latindarrak eta sabinarrak bizi ziren muino horietan. Herri horiek kultura eta hizkuntza ezberdinak zituzten, eta haien artean ia ez zegoen harremanik. Egoera aldatu zen Etruriaren eta Greziaren eragina izan zutenean.

Etruriarrak eta greziarrak merkataritzatik bizi ziren. Gainerako herrien aldean, garatuagoak ziren; horren jakitun izanik, beren arteko harremanak lantzen hasi ziren bi herriak. Tiber ibaiaz bestaldeen zegoen Etruria (gaur egungo Toskana), eta greziarrak hegoaldera heldu berriak ziren. Beraz, elkarren arteko tratuak egiteko, latindarren eta sabinarren eremutik derrigorrean pasatu behar zuten etruriarrek eta greziarrek.

Hori dela eta, bi herri horiek –etruskoak gehienbat– nolabaiteko eragina izan zuten latindar eta sabinarren. Herrixkak aberasten hasi, eta elkartu egin ziren: horrela sortu zen Erroma. Jarraian, haranaren erdian herri-enparatza bat eraiki nahi izan zuten guztien artean: foroa. Eta Etruriako teknologiari esker, haraneko erreka bideratu, lurra lehortu eta foroa zolatu zuten.

Erromako biztanleak mendietan bizi baziren ere, Erromako bihotza foro horretan zegoen. Handik aurrera, hiria foroaren inguruan hedatu zen, erromatarrek Italia eta mundua konkistatzen joaten ziren neurrian.

1.2 Italiar penintsula

Erroma babesteko, hiritik irten, eta alboko herri guztiak konkistatu zituzten erromatarrek. Ibilbide hori ulertzeko, komeni da Italiaren hainbat geografia-ezaugarri gogoratzea.

Mediterraneo itsasoak inguratzen du Italia:

- _ Iparraldeko zatiak Liguriako itsaso izena hartzen du.
- _ Mendebaldekoa Tirrenoa da. Bertan daude bi uharte nagusi: Sardinia eta Sizilia.
- _ Ekialdean, Itsaso Adriatikoa daukagu.
- _ Hego-ekialdean, Itsaso Jonikoa.

Erliebeari dagokionez, badaude bi mendikate nagusi eta hiru lautada garrantzitsu. Hauek dira mendikateak:

- _ Alpeak: Europako mendikate altuena da; ekialdeko muturrean, Dolomitak dira haien parte. Erromatarrentzat mendi horiek iparraldeko muga naturala ziren.
- _ Apeninoak: Alpeak baino txikiagoak dira, eta iparraldetik hegoalderantz kokatzen dira.

Eta hauek, lautadak:

- _ Iparraldean Galia Cisalpina, Po ibaiak eratutakoa.
- _ Erdialdean Lazio, Tiber ibaiaren ondoan.
- _ Hegoaldean, Campania.

Horrez guztiaz aparte, bi sumendi ezagun daude: Napoli ondoko Vesuvio eta Siziliako Etna. Lehenengoak, batez ere, garrantzia handia izan zuen, zeren eta, K.a. I. mendean eztanda egin zuenean, Ponpeia eta haren inguruak lurperatu egin baitzituen. Gaur egun, lurperatutako hiri horri esker jakin dezakegu nola bizi ziren orduko biztanleak.

Bukatzeko, aipatu behar dira hiru ibai garrantzitsu: iparraldean Po ibaia; erdialdean, Toscanan, Arno ibaia, eta Lazion, Tiber. Ibaion garrantzia honela ulertu behar da: batetik, herrien mugak izan ziren; bestetik, nekazaritza eta merkataritza-guneak ..

1.3 *Mare nostruma*

Italia txikiagi geratu zitzaien erromatarrei; hortaz, Mediterraneo inguruan zeuden lurralde guztiez jabetu zen Erroma. Hori dela eta, itsaso horri *Mare Nostrum* (*Gure Itsasoa*) izena jarri zioten.

Erromaren
eremu historikoa **2**

2.1 Erromaren sorrerarekin lotutako kondairak

2.1.1 Kondairak eta historia

Mitoek edo hasierako kondairek herri bat nola sortu den ulertzen lagun dezakete; kontuan hartu behar ditugu ezaugarri hauek: zer kontatzen duten eta ikertzaileek horretaz zer iritzi duten.

Kondaira horiek, gehienetan, herriak berak sortu izan zituen: kondaira horien bitartez, errealitatea eraldatu egiten zuen jatorria goraiatzeko. Beraz, kondairak ezin ditugu itsumustuan sinestu: mitoa eta historia bereizi egin behar ditugu, egia ezagutu nahi badugu.

2.1.2 Nork idatzi zituen erromari buruzko kondairak?

Erromatarren artean ere, baziren kondaira zaharrak. Kondaira horietan, besteak beste, kontatzen zuten Erroma nola sortu zen, zein ziren heroiak, eta zein izango zen Erromaren patua. Baina erromatarrak, inguruko herrien jabe bihurtu ostean, konturatu ziren antzinako hiri guztiek jainko eta jainkosekin edo erdi jainkosekin lotzen zutela herriaren sorrera, herria bera goratzeko. Besteek hala egin bazuten, berek ere gauza bera egitea pentsatu zuten.

Kristo aurreko III. mendean, Greziako poesia epikoa heldu zen Erromara. *Odisea* itzuli zuten lehenengo, baina laster hasi ziren Erromako antzinako eta orduko garaipenei buruz idazten. Grezian ez bezala, Erroman poesia jaso eta idatzia landu zen.

Era berean, Italiaren konkista aurrera zihoan neurrian, lehendabiziko historialariak agertu ziren Erroman. Horiek prosaz idatzi zuten, eta urteka batu nahi izan zituzten Erromako gertakari historikoak. Lanok *Annales* zuten izenburua. Hori dela eta, *analista* esaten diegu historialari haiei.

Analistek, Erroma handitu nahian, aurreko gertakizun guztiak asmatu behar izan zituzten, kondairak abiapuntutzat hartuta. Egiaz baino gehiago koherentziaz arduratu ziren. Horregatik, beharrezko ikusiz gero, agiriak faltsutu, dokumentuak egin eta

gertakariak eraldatzen zituzten. Talde horrek bide zabala ireki zien hurrengo idazleei, *Annales* idatziz geroztik han azaldutakoa egiazat hartu baitzuten erromatar guztiek.

Izan ere, K.a. I. mendean, Oktavio Augusto enperadore zelarik, Erromaren sorrera azaltzen zuten lan nagusiak idatzi ziren: Virgilioren *Eneida* eta Tito Livioaren *Ab Urbe Condita*. *Eneidan*, Eneasek egindako bidaia mitikoa kontatzen digu Virgiliok; *Ab Urbe Conditan*, Tito Livio, Erroma fundatu zenetik gertatutakoak.

Bi lan horiek ondo ulertzeko, ezin dugu ahaztu Augustok sustatu eta bultzatu zuela balio tradizionalak berreskuratzeko mugimendua; lan horretan, idazleen laguntza izan zuen. Beraz, Erromako historia berria bi helburu hauetan finkatu zen: Erromako herria jainkoei lotuta sortu zela adieraztea eta Augustoren familiaren legimitatea eta bere legimitate politikoa indartzea.

Egun, arkeologiak eta historiak azaltzen digute nola uler daitezkeen istorio haiek.

Ezinbesteko lau pasarte ditugu Erromaren sorrera ezagutzeko: Eneasen bidaia, Romuloren eta Remoren jaiotza, emakume sabinarren bahiketa eta Lukreziaren bortxaketa.

2.1.3 Nola sortu zen erromako zibilizazioa?

Eneasen bidaia

Eneasen bidaia nondik datorren ulertzeko, Troiako Gerra gogoratu behar dugu. Grekoen eta troiarren arteko gerrak hamar urtez luzatu ziren. Grekoak gotorlekuan sartzeko zeudela, Venus jainkosak bere seme Eneasi (Ankises hilkorrarekin izandako semea) agindu zion hiritik irteteko eta Troia berria sortzeko.

Familiarekin eta talde txiki batekin ihes egin zuen Eneasek hiritik, gauez; orduan, iskanbila sortu zen, eta iluntasunean emaztea galdu zuen. Aita eta semea hartuta, Eneasek Troia utzi zuen betiko.

Venusek agindu bezala, Eneasek leku baten bila nabigatu zuen, aberri berria sortzeko. Bidaia hori abenturaz beteta egon zen.

Izan ere, Juno jainkosak ez zuen nahi troiarrek Troia berreraikitzea; horregatik, luzaroan nora ezean nabigatzera behartu zituen. Neptuno jainkoaren laguntzaz, Kartagoko

kostaldera iritsi ziren. Han, Dido erregina Eneasekin zeharo maitemintzea lortu zuen Venusek.

Dido, Tiroko printzesa, alargundu egin zen, neba Pigmalionek senarra hil baitzuen. Tirotik ihes egin, eta Kartago sortu zuen printzesa alargunak.

Eneas eta Dido elkarrekin egon ziren, Merkurio agertu arte. Izan ere, Jupiterrek Merkurio bidali zuen, Eneasi esateko handik joan behar zuela, Troia berria fundatu behar zuen-eta. Didok bere buruaz beste egin zuen, Eneasek utzi zuenean. Horrela sortu zen kartagotarren eta erromatarren arteko gorrotoa.

Eneas Kartagotik Siziliara joan zen; han, aita hil ondoren, Eneasek haren omenez antolatu zituen jokoak. Gerora, Kumasen bisitan zegoela, sibilarengana jo, eta infernura jaitsi zen, bere patuaren berri jakiteko. Infernuan zegoela, aitak esan zion non eraiki behar zuen Troia berria.

Informazio hori eskuratu, eta Mediterraneoan zehar ibili zen Eneas jainko-jainkosen aginduak betez, Laziora iritsi arte. Han, Latino erregeak bere alaba Lavinia eman zion, eta Eneasekin ezkondu zen, orakulu batek esan baitzion Lavinia atzerritar batekin ezkonduko zela.

Errotuluen errege Turnok, Laviniaren ezkongai ohiak, ezkontzaren berri izan zuenean, haserratu, eta, latindarrei gerra deklaratu zien. Gatazka luzea izan zenez, Turnok eta Eneasek erabaki zuten guda amaituko zela beren arteko borroka batekin. Eneas atera zen garaile borroka gogor hartan.

Azkenean, Juno jainkosak troiarren kontrako gorrotoa gainditu, eta bakean utzi zituen Eneas eta haren senideak. Orduan, hiri berri bat sortu zuen Eneasek. Hiriari *Lavinium* izena jarri zion, emaztearen omenez. Troiarrak eta latindarrak batu ziren, eta arraza berri bat sortu zuten.

Interpretazioa

Eneas ezin egokiagoa izan zen Augustoren ideiak erromatarrei helarazteko. Alde batetik, Eneasen mitoa Grezian sortu zen aspaldian, eta erromatarrek kultura grekoa miretsi egiten zuten. Beste alde batetik, Eneas ez zen greziarra, troiarra baizik. Arazoa

zen erromatarrek ezin zutela onartu beren arbaso mitikoa greziarra izatea, greziarrak Erromaren mende zeuden-eta. Hori konpontzeko, troiarra aukeratu zuten.

Kondaira horrek hiru gauza hauek adierazten dizkigu:

- _ Erromaren sorrerak jainko-jainkosekin harreman estua zuen: Eneas erdi jainkoa zen, eta haren patua Troia berria sortzea zen.
- _ *Gens Julia* (Julio Zesarren eta Oktavio Augustoren leinua) jainko-jainkosekin lotuta zegoen, Venusen semearen (Eneasen) ondorengoak omen baitziren.
- _ Latindarren ostean hainbat herri heldu ziren Laziora, eta haiekin batu ziren.

Historia: erromatarren aurreko herriak

Lehenengo bi puntuak nekez sinets daitezke; hirugarrena baieztatzeko, arkeologiara jo dezakegu, Italiara heldu ziren herri batzuen berri ematen baitigu horrek.

Ikertzaileen arabera, Italiar penintsula Mediterraneo itsasoaren erdian dagoenez, antzinatean hainbat herriren helmuga izan da. Horrela, K.a. bigarren milurtekoaren bukaeran, hainbat tribu indoeuropar horra heldu, eta bertako tribuekin nahastu ziren. Iparraldean zeltak, venetoak eta liguriarrak kokatu ziren; erdialdean eta hegoaldean, umbriarrak, oskoak, sabinarrak, volskoak, ekuoak, samniotarrak eta latindarrak; Lazion hedatu ziren azken horiek, hain zuzen ere.

Handik gutxira, etruriarrak ailegatu ziren Asia Txikitik; azkenik, greziarrak. Herri horiek, aurrekoak baino garatuagoak ziren, eta artisautzatik eta merkataritza bizi ziren.

2.1.4 Nork eraiki zuen roma?

Romulo eta Remo

Eneas hil ondoren, haren seme Askanio izan zen ondorengoa. Askaniok Alba Longa hiria sortu zuen, eta luzaroan iraun zuen albatarren errege-dinastia hasi.

Hainbat erreinaldi baketsuren ondoren, Prokasek, dinastia horretako erregeetako batek, bi seme izan zituen: Numitor eta Amulio. Amuliok errege izan nahi zuen, nahiz eta Numitor anaia zaharrari oinordekotza egokitu,; beraz, boterea lortzeko plana asmatu, eta burutu egin zuen.

Lehenengo, liskarra sortu zuen anaiarekin; jarraian, Numitor bota egin zuen hiritik; eta, azkenik, anaiaren leinua betiko desagerrarazteko asmoa izan zuen. Izan ere, Amuliok Numitorren semeak hiltzeko agindu, eta Numitorren alaba bakarra, Rea Silvia, *vestal* apaiz-emakume egin zuen, seme-alabarik izan ez zezan.

Nolanahi ere, gauzak ez ziren gertatu Amuliok nahi izan zuen bezala: Marte, gerraren jainkoa, Rea Silviarekin maitemindu zen, eta harreman horretatik Romulo eta Remo bikiak sortu ziren.

Amuliok, haurren berri izan zuenean, Rea Silvia giltzaperatu zuen, eta morroi bati agindu zion umeak hiltzeko; horrela, jaioberriak haztean, ezin izango zuten Numitor aitona mendekatu. Hala ere, Erromaren patua idatzita zegoen, eta jainko-jainkosek nahi izan zuten morroiak umeak sehaska batean jartzea eta Tiber ibaira botatzea, Amulioren aginduak bete beharrean. Handik gutxira, otseme batek Romuloren eta Remoren negarrak entzun, umeengana hurbildu, eta haietaz arduratu zen, harik eta artzain batek umeak aurkitu arte. Artzainak haurrak etxera eramane zituen, bere emazteak zain zitzan.

Romulok eta Remok hemezortzi urte bete zituztenean, artzain horrek nor ziren esan zien. Orduan, Amuliori erregetza kendu zioten, aitona Numitorri bueltatzeko. Horixe izan zen anaia bikien mendekua.

Horren guztiaren ondoren, erabaki zuten hiri berri bat sortzea Tiber ibaiaren ertzean, otsemeak jaso zituen leku berean. Baina bai Romulok, bai Remok hiri berriko errege izan nahi zuten. Erregea nor izango zen erabakitzeko, jainkoei kontsultatzea pentsatu zuten. Jainko horiek hauxe iragarri zuten: hegazti gehien ikusten zituena izango zen errege. Plutarko historialariaren arabera, Remok, Aventino muinotik, sei sai ikusi zituen; Romulok, berriz, Palatinotik, hamabi. Hortaz, argi geratu zen Romulori egokitzen zitzaiola errege izatea.

Hiri berriaren mugak Palatino inguruetan markatzen hasi zirenean, Romulok esan zuen muga sakratua zeharkatzen ausartzen zena hil egingo zuela. Remok, hala ere, barre eta iseka artean zeharkatu zuen muga hori. Romulok, hura ikusi, eta anaia hil egin zuen.

Gero, haserre bizian, berriro egin zuen mehatxua: “Horixe gertatuko zaio nik egindako harresiak zeharkatzen ausartzen den edonori”.

Interpretazioa

Badirudi anaia bikien kondaira hori zaharrenetariko bat dela. Bibliako Moisesen istorioaren antzekoa bada ere, ez dago beste herri bateko literaturatik hartuta, eta badaude mito hori frogatzen duten txanpon zaharrak.

Romuloren eta Remoren istorioak honako ideia hauek adierazi nahi ditu:

- _ Erromaren sortzaileen arbasoak jainko-jainkosak ziren. Romulo eta Remo Marteren semeak ziren; era berean, Eneas, leinuaren sortzailea, Venusena.
- _ Erromaren defentsa edozein gauza baino garrantzitsuagoa zen. Romulok hiriko mugak ez errespetatzeagatik hil zuen anaia,.

Historia: Erromaren sorrera

Latindarrak Italiar penintsulara heldu zirenean, Lazioko lautada okupatu zuten, eta sabinarren ondoan bizi izan ziren haiekin elkartu arte. Tiber ibaiaren inguruak zingiraz beteta zeudenez, inguruko muinoetan kokatu, eta nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi izan ziren. Ikerketen arabera, herrixkarik zaharrena Palatino mendian zegoen kokatuta.

Laster, hango muinoetan sakabanatuta zeuden latindar herrixkak elkartu egin ziren, eta elkarri laguntzeko konfederazio bat osatu zuten: *Septimontium*.

Ez dago argi nondik datorren konfederazio horren izena. Varron historialariaren arabera, *Septimontium* izenak *septem montes* (zazpi mendi) adierazten du: Kapitolinoa, Kirinala, Viminala, Eskilinoa, Zelioa, Aventinoa eta Palatinoa. Gaur, ordez, badakigu Kapitolinoan eta Kirinalan zeuden herrixkak geroago sartu zirela konfederazio horretan. Horregatik, zenbait ikertzailek pentsatzen dute *Septimontium* izenak *saepti montes* (oholesiz babestutako mendiak) adierazten duela.

Nolanahi ere, zazpi muino horietan sortuko da Erroma K.a.VIII. mendearen bukaeran (K.a. 753. urtean, tradizioaren arabera). Kokalekua ezin hobea zen: Lazioko erdigunean,

Tiber ibaiaren bokaletik gertu, babesteko erraza eta merkataritza-ibilbideen bidegurutzean.

2.1.5 Nola lortu zuen Erromak bizirik irautea?

Emakume sabinarren bahiketa

Kondairaren arabera, lehenengo urteetan Erromara kanpoko gizonezko asko heldu, eta bertakotu egin ziren; baina ezin zuten familia osatu, bertan emakume gutxi bizi zirelako. Beraz, Erromak ez zuen bizirik irauterik emakume gabe. Arazo horri aurre egiteko, Romulok alboko herrietara jo zuen laguntza eske, baina ez zuen ezer lortu. Orduan, ideia bat izan zuen Romulok: Erroman jokoak antolatu, eta Sabinako biztanleak gonbidatu zituen, gizon sabinarrek emazteak eta seme-alabak ere eramango zituztelakoan. Horrela izan zen. Ikuskizunak eta hiri berria ikusteko minak jendetza erakarri zuen. Jokoak hasteko zeudenean, adostutako seinalea egin, eta erromatarrek emakume bana bahitu zuten. Emakumeen senideek ezin izan zuten ezer egin, dena arin-arin gertatu baitzen.

Gizon sabinarrak hiritik kanporatu zituztenean, erromatarrek, bahitutako emakumeak lasaitzen saiatu, eta berekin ezkontzeko eskatu zieten. Orduan, emakume sabinarrek baietz erantzun zuten, baldin eta bi eskaera onartzen bazitzaien: lehenengoa, etxean agintzeko eskumena izatea, gizonen gainetik; bigarrena, josteaz bakarrik arduratzea, gainerako lanak alde batera utzita.

Gizon sabinarrek Erromaren kontrako gerra hasi zuten. Erromara sartzeko, Tarpeia izeneko emakume sabinar baten laguntza izan zuten. Emakume horrek *besoetan zeramatzaten apaingarriak* eskatu zizkien, hirian sartzen laguntzeagatik. Gizonezkoek baietz esan arren, hirian sartu ondoren, ez zizkioten besoetan zeramatzaten apaingarriak eman, beren ezkutuak baizik. Izan ere, garai hartan ez zegoen ondo ikusita inor saltzea, eta traidoretzat hartu zuten Tarpeia. Erromatarrei egindako traizioagatik, hantxe bertan kolpeka hil, eta amildegia batetik bota zuten gizon sabinarrek. Harrezkero, traidoreak amildegia horretan behera botatzen zituzten. Gaur egun ere, Tarpeiaren Arroka izena du leku horrek.

Azkenean, erromatarrek eta gizon sabinarrak aurrez aurre jarri zirenean, emakume sabinarrak tartean jarri ziren, guda eragozteko. Honela hitz egin zieten: “Erromatarrok

irabazten baduzue, guraso eta nebak galduko ditugu; sabinarrok irabazten baduzue, senarrak ez ezik, seme-alabak ere galduko ditugu”. Talde biek emakumeek arrazoia zutela onartu, harremanak berreskuratu, eta ospatu egin zuten.

Gertakari horren ondorioz, herri biak elkartu ziren. Sabinako erregeak eta Romulok elkarrekin gobernatu zuten, harik eta lehenengoa hil arte.

Interpretazioa

Kondaira horrek azaldu nahi zuen herri italiar guztiek nola bideratu behar zuten beren arteko batasuna: desadostasunak gainditu behar zituzten gainerako zibilizazioei aurre egiteko.

Historia: Erromaren hasiera

Kristo aurreko VIII. mendearen bukaeran, Etruriako herriak hedatu ziren Italian zehar. Sabinar herrixka batzuk, haien beldurrez, latindarren konfederazioan (*Septimontium*) sartu ziren, beren burua babesteko.

Konfederazio horren burua erregea (*rex*) zen; kontseilua (*senatus*), aholkatu egiten zuena. Horrela, latindarrak eta sabinarrak aske bizi izan ziren, harik eta mende bat geroago etruskoek haiek menderatu arte.

2.1.6 Nola sortu zen errepublika?

Lukreziaren bortxaketa

Etruriarrek Lazio menderatu ondoren, errege etruskoek Erroma gobernatu zuten luzaroan. Azken erregea Tarkino Harroa (*Tarkino Superbo*) izan zen. Pertsona ankerra zen Tarkino, eta legea ez zuen aintzat hartzen. Patrizioek (nobleek) ez zuten maite, ezta plebeioek (herriak) ere; baina inor ere ez zen ausartu erregeari aurre egitera.

Errege horren seme bat guztiz maiteminduta zegoen emakume ezkondu batekin. Emakumeak Lukrezia zuen izena; Erroman ezaguna zen, oso ederra, zintzoa eta arduratsua baitzen.

Behin, senarra hiritik kanpo zegoela, Lukreziaren etxera joan zen gauaren erdian, bere desioak asetzeko. Gaua oso iluna zenez, ezkutuan Lukreziaren gelara sartu, eta bortxatu egin zuen. Tito Livioaren bertsioaren arabera, Lukreziak une hartan ez zuen ezer esan, gizon hura bere senarra zelakoan, baina hurrengo egunean gertatutakoaz konturatu zen.

Beste bertsio baten arabera, Lukrezia esnatu, erregearen semea zela konturatu, eta handik joateko eskatu zion. Baina hark, emakumearen erreguak entzun barik, honela mehatxatu zuen: bere desioa asebetetzen ez bazuen, Lukrezia bera erail ondoren, morroi bat ere hilko zuela hantxe, jendeari sinetsarazteko morroia eta jabea amoranteak zirela. Orduan, Lukreziak pentsatu zuen ezen, bera hilez gero, ezin izango zuela egia kontatu, eta, beraz, familia osoaren ohorea galduko zela. Azkenean, erregearen semeak bortxatu egin zuen.

Nolanahi ere, hurrengo egunean, Lukreziak bere aitari eta senarrari gertatutakoa kontatu ondoren, emakumeak, ohorea galdua, bere buruaz beste egin zuen.

Berri hori zabaldu zenean, erregearen kontrako matxinada jarri zen abian. Erromatarrek Tarkino eta haren familia bota zituzten hiritik. Horrela amaitu zen etruriarrek Erroman ezarritako monarkia. Boterea Senatuaren esku geratu zen.

Interpretazioa

Ezin dugu jakin Lukreziaren istorioa gertatu zen ala ez, garai hartan ez baitzegoen inolako erregistrorik. Hala ere, istorio horretan egin beharreko irakurketa da erromatar herriak edozein tiraniari aurre egiteko prest zegoela.

Historia: monarkiaren amaiera

Erromako azken erregeak etruriarrak izan ziren: Tarkino Zaharra, Servio Tulio eta Tarkino Harroa. Azken horrek batez ere, bere probetxurako baino ez zuen gobernatu, eta ez zuen kontuan hartu Senatuaren iritzia, aginte hori erromatar familia patrizioen buruekin osaturik baitzegoen.

Etruriako herrietan arazoak hasi zirenean, erromatarrek egoera hori baliatu zuten, tirania horren aurka altxatzeko. Horrela, monarkia bukatu, eta erregimen berria hasi zen.

2.2 Erromaren historia

2.2.1 Erroma aurreko herriak

Antzinako Erroma ez zen izan Mediterraneo itsasoko lehenengo zibilizazio handia. Erromak baino lehen, minoikoen, mizenastarrek eta greziarrek menderatu zuten inguru hori.

Zibilizazio minoikoa (K.a. 2600-1500)

Zibilizazio minoikoa Kretan garatu zen; oso aurreratua izan omen zen, indusketa arkeologikoen arabera. Zibilizazio horren ezaugarri nagusiak hauek izan ziren:

- _ Monarkia izan zen gobernu-sistema.
- _ Silabario idazketa-sistema erabili zuten.
- _ Ontzidi handia izan zuten, eta, horri esker, Mediterraneo itsasoa menderatu zuten.
- _ Ekialde Ertaineko inperio askorekin izan zituzten merkataritza-harremanak, Egiptorekin batez ere.
- _ Jauregi handiak eraiki zituzten, eta haietako ormak fresko bikainekin apaindu. Fresko horiek minoikoen bizimodua islatzen zuten. Jauregiek, ehun gela baino gehiago zituztenez, labirintoa ematen zuten: hortik sortu zen minotauroaren eta labirintoaren kondaira. Izan ere, zibilizazio honi *minoiko* edo *minostar* izena eman zioten mitologiako Minos erregearen omenez.

Kristo aurreko 1500. urtean, Tera (gaur egungo Santorini) irlako sumendiak eztanda egin zuen, eta irla erdia urperatu zen; Kretan ere kalte handiak izan ziren. Harrezkero, zibilizazio minoikoa gainbeheratu egin zen.

Mizenas (K.a. 1600-1200)

Akeo zeritzen herri gerrariak etorri ziren Europaren erdialdetik eta Balkanetatik. Herri akeo horiek erreinu indartsuak eratu zituzten Greziako lurralde kontinentalean. Mizenas zen akeoen hiririk garrantzitsuenak. Horregatik, mizenastar zibilizazioa esaten zaio hari.

Kristo aurreko 1500. urtean, mizenastarrek Kreta uhartea inbaditu, eta menderatu egin zuten. Troia hartu zuten, eta lehenengo greziarrak izan ziren.

Ikerketen arabera, Troia hartu eta gero, Mizenasko zibilizazioaren gainbehera etorri zen.

- _ Troiako gudak gastu asko eta handiak eragin zizkien.
- _ Akeoen mende zeuden herriak haien aurka altxatu ziren.
- _ Mediterraneoan merkataritza gelditu egin zen, zenbait ekonomia-gune hondatu ziren-eta.
- _ Kristo aurreko 1200. urtean, doriarren inbasio-saldoak iritsi ziren Greziara.

Mizenas suntsitu ondoren, lau mendeko aro iluna etorri zen, lehenengo *polisak* sortu arte.

Grezia (K.a 800-323)

Grezia kontinentalean, Egeo eta Adriatiko itsasoetako uharteetan eta Asia Txikiko kostaldean, klima eta lurrak ez ziren nekazaritzarako egokiak; hango biztanleek itsasalderantz jo zuten, Mediterraneoan zehar hedatu ziren, eta kolonia ugari sortu zuten. Harrezkero, Mediterraneo itsasoaren hegemonia greziarren esku egon zen:

- _ Kristo aurreko V. mendean, persiarren kontrako gerrak irabazi eta gero, Atenas izan zen Mediterraneoan hiririk garrantzitsuenak.
- _ Kristo aurreko IV. mendean, Espartak Atenasi irabazi zion Peloponesoko gerran, eta Grezia menderatu zuen 25 urtez.

Kristo aurreko 336-323 urte bitartean, Mazedoniako Alexandro Handiaren inperioa Egiptotik Indiaraino hedatu zen.

Kristo aurreko VIII. mendetik aurrera, greziar kolonoak Italiar penintsulako hegoaldean finkatu ziren, eta, geroago, Sizilian. Bi toki horietan, hiri garrantzitsuak sortu zituzten. Mende horretan ere, herri latindarrek Erroma sortu zuten Lazioko erdigunean.

Ezin dugu ahaztu greziarrak baino lehen beste herri batzuk heldu zirela Italiar penintsulara:

- _ Kristo aurreko XIII. mendearen inguruan, zeltek, venetoarrek eta liguriarrek okupatzen zuten Italia.
- _ Brontze Aroan, Europaren erdialdetik etorri, eta penintsularen erdialdean kokatu ziren zenbait herri italiko: umbriarrak, oskoak, sabinarrak, volskoak, ekuoak, samniotarrak eta latindarrak.
- _ Kristo aurreko 1000. urtean, gutxi gorabehera, etruriarrak Asia Txikitik etorri, eta italikoek mendebaldeko kostaldean zeukaten lurralde zati bat hartu zuten.

Greziaren eta Erromaren historiak erkatzen baditugu, konturatuko gara biak K.a. VIII. mendean sortu zirela eta berehala hedatzen hasi zirela. K.a. V. eta IV. mendeetan zehar, Greziarrek Mediterraneo ingurua menderatzen zuten bitartean, Erromak Italiar penintsula konkiskatu zuen.

Azkenean, K.a. III. mendean, Alexandro Handiaren inperioa desegin, eta Egiptoko, Asia Txikiko eta Pergamoko erresuma greziarrak sortu ziren. Handik aurrera, Grezia gainbeheratu egin zen. Erroma, berriz, Italia konkistatzen bukatu, eta Mediterraneoan zehar hedatu zen; horren ondorioz, greziarrak erromatarren mende geratu ziren.

2.2.2 Monarkia-garaia (K.a. 753-509)

Antzinako kondairak aztertu ditugu, eta badakigu nola sortu, sendotu eta bukatu zen monarkia hori.

Tradizioan oinarrituta, zazpi erregeren izenak heldu zaizkigu: lehenengo laurak latindar-sabinarrak ziren; azkenengo hirurak, berriz, etruriarrak.

Erromatar erregeak (K.a. 753–616)

Aipatutako zazpi erregeen artean, Romulo da lehenengoa eta errege legendario bakarra; hau da, ez dakigu ziur Erromako lehenengo erregeak Romulo izena zuen ala ez. Egungo teorien arabera, *Romulo* izena *Roma* izenetik dator, eta ez alderantziz. Tradizioak dioenez, Erroma eta Senatua sortu zituen Romulok.

Numa Pompilio izan zen bigarren erregea: hiriko bizimodu erlijiosoa antolatu, hamabi hileko egutegia ezarri, eta egutegi horren lanegunak eta jaiegunak antolatu zituen.

Tulo Hostilio izan zen hirugarren erregea, Numa Pompilioren ondoren. Gerrazalea izan omen zen, eta Alba hiriaren kontra borrokatu zen.

Ondoren, Anko Martziok hartu zuen tronua. Laugarren errege horrek Erromaren lurraldea itsasoraino zabaldu, eta Ostiako portua eraiki zuen.

Baina etruriarrek, hegoalderantz hedatu zirenean, Lazio osoa hartu zuten; horrek ekarri zuen Erromako hurrengo hiru erregeak etruriarrak izatea.

Errege etruskoak (K.a. 616-509)

Tarkino Prisko (Tarkino Zaharra) Erromako bosgarren erregea izan zen. Herriaren erreforma garrantzitsua sustatu zuen, eta eraikin hauek egiteko agindu: Foroa, Zirku Handia, eskola ugari eta Estolda Handia (*Cloaca Maxima*). Aurreko erregearen semeek antolatutako konspirazio batean hil zen Tarkino Zaharra; hala eta guztiz ere, hurrengo errege ere etruriarra izan zen.

Servio Tulio dugu Tarkino Zaharraren oinordekoa. Seigarren errege horrek ez zuen lortu latindarrek bera onartzea. Tarkino Zaharrak hasitako herri lanak egiten jarraitu zuen, eta Erromako lehenengo hesiak eraikiarazi zituen. Erakundeak eta gizartea erreformatu zituen sakonki.

Tarkino Superbo (Tarkino Harroa) izan zen Erromako azken erregea. Horrek Servio Tulio erregea hilarazteko agindu zuen, boterea lortzeko. Kanpoan Etruriaren hegemonia kolokan zegoela aprobetxatuta, Erromako patrizioak eta plebeioak altxatu ziren, Tarkinoren tiraniaren aurka.

2.2.3 Errepublika-garaia (K.a. 509- 31)

Monarkia erori ondoren, errepublika izan zen Erromako gobernu-sistema berria; *Senatus populusque romanus* (erromatar Senatu eta herria) latinezko hitzek laburbiltzen zuten Erromatar Errepublikaren oinarria.

Aurrerantzean, Italian zehar hedatu, eta alboko herriak konkistatu zituzten erromatarrek; hori egiteko argudioa defentsa-gerrak zirela izan zen.

Italiaren konkista (K.a. IV. eta III. mendeak)

Hasieran, etruskoak Laziotik bota ostean, hango hiriek osatutako federazioa bere gain hartu zuen Erromak. Horrela lortu zuten erromatarrek *Liga Latinaren* agintariak izatea.

Ondoren, *Liga Latinak* Italiaren erdian zeuden gainerako herriak menderatu zituen: sabinarrak, ekuoak, volskoak, baita etruriarrak ere; azken horien hiri nagusia konkistatu zuten K.a. 395. urtean.

Bost urte geroago, galiarrek Erroma konkistatu zuten, Po ibaiaren haranean bertakotu ondoren. Erromak galiarrengandik askatzea lortu zuen, erreskate handi baten truke. Menderatutako herriak berriz ere altxatu ziren, baita Lazioko hiriak ere. K.a. 335. urtean, Erromak beste herrien kontrola berreskuratzea lortu zuen. Orduan, Erromak *Liga latina* deuseztatu, eta Lazioko hiri guztiei bigarren mailako hiritartasun-eskubidea (*Ius Latii*) ezarri zien. Harrezkero, hiri horietako biztanleek erromatarren betebeharrak guztiak izan zituzten; ezin kargurik aukeratu, ordea.

Kristo aurreko IV. mendearen bigarren erdian, erromatarrek Lazioko hegoaldeko herriekin borrokatzen hasi ziren: samnienaren kontrako gerrak berrogeita hamar urtez luzatu ziren. Erromatarrek, gerra horiek irabazi ondoren, Italiar penintsula osoa menderatu zuten, bi muturrak izan ezik: Iparraldean, Po ibaiaren haranetik Alpetaraino; hegoaldean, kostaldeko greziar koloniak (Grezia Handia).

Kristo aurreko 272. urtean, Grezia Handikoek Erromaren kontrako borroka galdu zuten, eta, K.a. 225. urtean, Po ibaiaren haranaren konkista hasi zuen Erromak, hara joan baitziren galiarrak.

Mediterraneoaren konkista (K.a. III.- I. mendeak)

Italiar penintsula behin betiko konkistatu ondoren, K.a. III. mendean Mediterraneo aldeko konkista hasi zuten erromatarrek. Lehendabizi, gerra punikoetan Kartago suntsitu zuten; ondoren, Mediterraneo itsasoaren inguruan zeuden gainerako herri guztiak konkistatu zituen Erromak.

Lehenengo Gerra Punikoa Sizilia uhartean piztu zen. Uharte hori bi potentziaren (Erroma eta Kartago) artean kokatuta zegoen, eta bietan Sizilia kontrolatu nahi zuten:

Kartagok, zerealez hornitzeko; Erromak, berriz, posizio estrategikoa lortzeko. Erroma garaile atera zen, eta Sizilia *Erromako lehenengo probintzia* izendatu zuen.

Bigarren Gerra Punikoa Iberiar penintsulan hasi zen. Kartagok, lehenengo gerra galdu ondoren, gerraren kalte-ordaina zor zion Erromari; zor horri aurre egiteko, Iberiar penintsulan zehar hedatzea erabaki zuen Kartagok. Erromatarrek eta kartagotarrek Ebroko ituna sinatu zuten, ibai horretan beren arteko muga ezartzeko: Ebroren iparraldeko lurraldeak erromatarrentzat izan ziren; Ebroren hegoaldekoak, kartagotarrentzat. Kartagotarrek Sagunt hiria hartu zuten, Ebrotik hegoalderantz zegoen-eta. Orduan, erromatarrek Bigarren Gerra Punikoa hasi zuten, Sagunt Erromaren aliatua zela eta lagundu behar ziotela argudiatuta. Bigarren Gerra Punikoan gertakizun oso ospetsu bat izan zen. Kartagotar armadako buruzagi Hanibalek Pirineoak zeharkatu, Alpeetako pasabide estuetatik igaro, eta Erromaraino bertaraino eraman zuen kartagotar armada, elefante eta guzti. Erromatarrek, Iberiar penintsulara armada handiagoa ekarri, eta kartagotarrak bota zituzten handik. Gero, Afrikarantz abiatu ziren. Gauzak horrela, Hanibalek Kartagora itzuli behar izan zuen, hango kartagotarrei laguntzeko; hortaz, ezin izan zituen etsaiak garaitu, eta Erromak irabazi zuen berriro. Horren ondorioz, erromatarren inperioa hedatu egin zen: Italiar penintsulako iparraldea, Frantziako hegoaldea, Iberiar penintsulako hegoaldea eta ekialdea (Hispania) eta Afrikako iparraldea (Afrika).

Hirugarren Gerra Punikoa hasi baino lehen, Erromak hedatzen jarraitu zuen: ekialdetik, Mazedoniara eta Grezia osora; mendebaldetik, Iberiar penintsulako barnealdera (lusitaniarren eta zeltiberiarren aurkako gerrak). Kartagok ezin zuen armadarik izan Erromarekin sinatutako bake-tratatuagatik, eta Numidiak, alboko herriak, askotan egiten zion eraso erromatarren oniritziar. Horrela egon ziren berrogei eta hamar urtez. Baina bigarren gerraren kalte-ordainak ordaintzen bukatu zuenean, Kartagok armada berrantolatzea erabaki zuen. Hori ikusita, erromatarrek pentsatu zuten Kartago oraindik arriskutsua zela eta suntitu egin behar zutela. Beraz, armada bat bidali zuten hara, hiriari erasotzeko. Hiru urteko setioa jasan ondoren, hiria suntsitu, eta Kartago erromatar hiri bihurtu zuen Erromak.

Kartago suntsitu eta gutxira, Pergamoko (Turkia) erregea oinordekorik gabe hil zen, eta oinordekotzan utzi zion Erromari hango erresuma.

Errepublikaren krisia (K.a. I. mendea)

Errepublikako azken urteetan, barne-arazo larriak izan arren, Erromak Mediterraneoko kostalde osoa menderatu zuen. Esate baterako, Kaio Julio Zesarrek Galia konkistatu, eta Ingalaterra inbaditu zuen (K.a. 58-48).

Baina, zer gertatzen zen Erroman bertan?

- _ Krisi ekonomikoak eta herritar libreentzako lur-eskasiak nahigabea hedatu zuten jendearen artean.
- _ Esklaboekin izandako arazoak gero eta larriagoak ziren. Espartako izeneko esklaboak zuzendutako matxinada izan zen ospetsuena, 100.000 jarraitzaile baino gehiago izan zuen-eta. Esklaboz osatutako armada horrek menderatu zuen Erromako armada 18 hilabetez, baina, azkenean, Kraso eta Ponpeio jeneralen tropek garaitu zuten Espartakoren armada. Matxinadaren ondorioz, krisi ekonomikoa larriagotu zen, esklabo kopurua asko jaitsi baitzen.
- _ Erromak gainerako latindar herriekin ere arazoak izan zituen: herri horiek erabateko herritartasun-eskubidea eskatzen zioten. Azkenean, Erromak latindarren eskaera bete behar izan zuen.
- _ Egoera berriaren ondorioz, soldaduen eta estatuaren arteko harremana aldatu egin zen: ordutik aurrera, soldaduentzat erreferenterik goiena jenerala izango zen.

Gauzak horrela, Errepublikako erakundeek ezin zuten bake soziala mantendu, ezta lurralde osoa gobernatu ere; horren ondorioz, militarrek estatu-kolpeen eta diktaduren bidez eskuratu zuten boterea. Militarren artean, Julio Zesar nabarmendu zen. Ponpeio jeneralaren aurkako gerra zibila irabazi ondoren (K.a. 49-45), botere absolutua lortu zuen oso denbora gutxian.

Hori ikusita, K.a. 44. urtean, Erromako senatari talde handi batek Julio Zesar hil zuen senatuan bertan, boterea Erromako Senatuari eta herriari itzultzeko. Senatari horiek pentsatzen zuten herria alde izango zutela eta babestuko zituela, baina erratu egin ziren, zeren eta, Zesarren hiletaren ondoren, erromatarrek hiltzaileei eraso baitzieten.

Testamentuaren arabera, Zesarrek bere semebitxi Oktaviori utzi zion lekua. Hasieran, Marko Antoniok (Zesarren ordezkari militarra) eta Oktaviok partekatu zuten boterea, baina laster haien arteko arazoek ekarri zuten gerra zibila.

2.2.4 Inperio-garaia (K.a. 31-K.o. 476)

Kristo aurreko 31. urtean, Actiumgo Guduaren ostean, Oktaviok Mediterraneoan zehar zeuden hainbat gatazka konpondu zituen. Bi urte geroago, Erromara itzuli zenean, herriari zin egin zion ezen, hiria berreraikitzeaz gain, bakea eta segurtasuna berreskuratuko zuela. Oktaviok ez zuen nahi berari gertatzea Julio Zesarri gertatutakoa; horregatik, guztiei sinetsarazi zien eutsi nahi ziela Errepublikako ohiturei. Horrela jokaturik bereganatu zuen Oktaviok botere osoa, eta K.a. 27. urtean Senatuak *princeps* izendatu zuen.

Goi-inperioa (K.a. I.-K.o. III. mendeak)

Lehenengo bi mende eta erdian, hiru dinastia hauek agindu zuten segidan: julia-klaudiar leinua, flaviar leinua eta antoniar leinua.

Julia-klaudiar leinukoek (Tiberio, Kaligula, Klaudio eta Neron) ez zuten gobernatu Augustok bezain ondo, eta haien jokabidean izandako moralik eza kritikatu izan da historian zehar. Izan ere, Augustok lehendik antolatutako burokraziak eta armadak atera zuten inperioa aurrera. Garai hartan, erromatarrek Britannia (gaur egungo Ingalaterra) konkistatu, eta probintzia bihurtu zuten; horrez gain, Mauritania (gaur egungo Maroko) menderatu zuten.

Vespasianok eta haren bi semeek flaviar leinua osatu zuten. Militarren arteko gatazka baten ondoren, Senatuak Vespasiano enperadore izendatu zuen. Hiru enperadore horien jokabidea oso egokia izan zen: barne-arazoak ekiditeko, administrazioaz arduratu ziren, eta iparraldean behin betiko mugak ezarri zituzten Rhin eta Danubio ibaiek osatutako lerroan.

Antoniar leinukoak hauek izan ziren: Nerva, Trajano, Hadriano, Antonino Pio, Marko Aurelio eta Komodo. Komodo izan ezik, gainerako enperadoreak arduratsuak eta zuzenak izan ziren. Horien agintaldian, armadaren boterea areagotu egin zen, eta Erromatar Inperioa inoiz baino gehiago zabaltzea lortu zuten: Arabia, Armenia eta Mesopotamia konkistatu zituzten; Europan, Trajano enperadoreak Dazia (gaur egungo Errumania) konkistatu zuen.

Handik gutxira, argi geratu zen mugak ezin zituztela gehiago zabaldu, zenbait lekutan arazoak etengabe sortu baitziren; izan ere, erasotzeko gerrak egin beharrean, defendatzeko gerrak egin behar izan zituzten erromatarrek. Hori dela eta, muga estrategikoenak babesteko, gotorleku erraldoiak eraikiarazi zituzten enperadoreek. Hona ezagunenak: Ingalaterraren eta Eskoziaren arteko mugan, Hadrianoren Harresia (Eskozia konkistatu gabe geratu zen); Germanian, Rhin eta Danubio ibaien artean, gotorlekua eta kuartel-lerroa.

Behe-inperioa (K.o. II.-V. mendeak)

Komodo hil zenetik (192. urtea) Diokleziano enperadore izendatu arte (284. urtea), hogeita hamalau enperadore izan zituen Erromak. Egoera hori ulertzeko, kontuan hartu behar dugu Komodoren oinordekotza armadaren esku geratu zela, berak ez baitzuen inor izendatu. Armadako jeneralek hautagaiak inposatu nahi zituzten; horren ondorioz, jeneralen arteko gatazkak sortu ziren.

Militarren anarkiak krisialdia larriagotu zuen, baina hori ez zen eragile bakarra izan. Beste eragile hauek ere ezin dira ahaztu:

- _ Ekonomia-krisia. Lurralde berririk ez gehitzeak diru falta handia ekarri zion Erromari, eta, Inperioko burokraziaren eta armadaren gastuak ordaintzeko, gero eta diru gehiago behar zen. Orduan, lur-jabe aberatsei estatuaren lur berriak (*ager publicus*) saldu zizkieten, batetik, eta, bestetik, zergak igo biztanle guztiei.
- _ Gizarte-krisia. Pobreziak gizarte-gatazkak ekarri zituen: behartsuenek ondasunak kentzen zizkieten dirudunei, iskanbilak sortzen zituzten kaleetan, siloetan zerealak lapurtzen zizkieten, eta abar.
- _ Erromatar Inperioaren tamaina. Oso inperio handia zenez, gobernatzen zaila zen: nekez defenda zitezkeen lurralde urrunenak; beraz, defentsarako gotorleku eta kuartelak eraiki behar izan ziren. Horrez gain, Inperioaren barnealdean ere arazoak sortu ziren: menderatutako herri barbaro (erromatarrek ez zirenak) batzuk erromatarren kontra altxatu ziren, baita beste herri barbaro batzuei eraso ere.

284. urtean, armadak enperadore izendatu zuen Diokleziano. Bederatzi urte geroago (305), Diokleziano enperadoreak bitan banatu zuen Inperioa, hori gobernatzea errezagoa izan zedin. Diokleziano Ekialdeko Inperioan izan zen enperadore.

312. urtean, boterea bere gain hartzeko hainbat gatazkaren ostean, Konstantino enperadoreak berriro ere batu zuen Inperioa. Inperioko hiriburua *Constantinoplar*a (Istanbul) eraman zuen Konstantinok. Erabaki horren ondorioz, Ekialdeko Inperioa berpizten zen neurrian, Mendebaldekoa gainbeheratu zen betiko.

Hirietan bizi zirenak landara joan ziren, segurtasunik eza, zergak eta errekrutatzea saihesteko.

Aberatsek mertzenarioak ordaindu zituzten beren etxaldeak babesteko; etxalde horiek handiagotu zituzten, Estatuari lursailak erosita.

Txiroek aberatsengana jo behar izan zuten lursail eta babes eske. Kolono horiek lantzen zuten lurrari lotuta geratu ziren, baina ez ziren lur-jabeak.

Artisauak ere joan ziren hirietatik: herririk herri eta etxalderik etxalde joaten ziren beren lana eskaintzen.

Inperioaren gainbehera (K.o. V. mendea)

395. urtean, Teodosio enperadorea hil zenean, Erromatar Inperioa betiko erdibitu zen: Arkadiori Ekialdeko Erromatar Inperioa egokitu zitzaion; Honoriori, berriz, Mendebaldekoa. Teodosiok, Dioklezianok lehenago egin zuen bezala, boterea banatu zuen, gobernatzea errezagoa izan zedin. Ez zuen uste Inperioa erdibituko zenik, baina horixe gertatu zen.

Ekialdea aberatsena zen, eta han jende gehiago bizi zen, arrisku gutxiago zegoen-eta. Inperio berria sortu zen: Bizantzioko Inperioa, hain zuzen ere. Bizantziok hamar mendez iraun zuen.

Mendebaldeak ezin izan zion lurralde-osotasunari eutsi, kanpotik etorri ziren herri barbaroen inbasio-saldoengatik; Mendebaldeko Inperioa txikiagotuz eta suntsituz joan zen, harik eta Odoakro errege germaniarrak Romulo Augustulo enperadorea kendu arte, 476. urtean.

2.3 Erromatarrak Hispanian

2.3.1 Erromatarrak baino lehen

Erromatarrak Iberiar penintsulara etorri baino lehen, hainbat herri bizi ziren bertan. Erromatarren deskribapenen arabera, hauek dira herriak:

- _ Iparraldean: *Gallaeci, Lucenses, Astures, Cantabri* eta *Vascones*
- _ Ekialdean: *Ilergetes, Ausetani, Laietani, Edetani* eta abar
- _ Hegoaldean: *Bastenani, Turdetani, Oretani* eta *Turduli*
- _ Mendebaldean: *Lusitani* eta *Turduli-veteres*
- _ Erdialdean: *Carpetani*

Historalariak bestelako sailkapena egiten dute, kulturak kontuan hartuta. Iberiar penintsulan ezagutzen diren lehenengo biztanleak hauek izan ziren:

- _ Euskal tribuak iparraldean bizi ziren. Beroiak, baskoiak, karistiarrak, barduliarrak eta autrigoiak herri ezberdinak izan arren, guztiek euskara hitz egiten zuten, eta hizkuntza hori izan zen bizirik iraun zuen hizkuntza bakarra, erromatarrak heldu ostean.
- _ Kantabriarrak eta asturiarrak ere iparraldean bizi ziren. K.a. VIII. mendean, zeltak heldu, eta bertakotu egin ziren: zeltak kantabriar-asturiarrekin nahastu ziren, baina bertako biztanleen ohiturak eta tradizioak gorde zituzten.
- _ Iberiarrak hegoaldean eta ekialdean bizi ziren. Aditu batzuen ustez, Asia Txikitik etorritakoak ziren; beste batzuen ustez, ordea, hainbat lekutako jende-saldoak ziren.
- _ Tartesostarrak penintsulako hegoaldean bizi ziren, gaur egungo Andaluzian. Badirudi lehendik Asia Txikitik etorritako beste herri batek Tartesos sortu zuela. Nahiko inperio handia eta garatua izan omen zen, baina kartagotarrak heldu (K.a. VI. mendean), eta tartesostarrak desagertu egin ziren, ia inolako arrastorik utzi gabe.
- _ *Zeltak* indoeuropar herriak ziren, eta K.a. IX. mendean iparraldetik heldu ziren Iberiar penintsulara. Hasieran Pirinio aldean ezarri baziren ere, pixkanaka-

pixkanaka hegoalderantz jo zuten. Iberiarrekin batu zirenean, Tajo eta Guadiana ibaien artean, kultura berri bat sortu zuten: zeltiberiar kultura..

Beste herri batzuk ere heldu ziren Iberiar penintsulara. Mediterraneoan zeharkatuta, feniziarrek, greziarrek eta, geroago, kartagotarrek koloniak sortu, eta ekialdeko kostaldean geratu ziren lurraldea ustiatzeko.

- _ Kristo aurreko IX. mendean, feniziarrek heldu ziren penintsulara, batez ere metalen bila. Gibraltarreko itsasarteko inguruetan faktoriak eta hainbat hiri eratu zituzten.
- _ Kristo aurreko VIII. mendean, greziarrek Mediterraneo osoan zehar koloniak eratu zituzten: Italiar penintsulan (Grezia Handia), Asia Txikian eta Itsaso Beltzeko kostaldean; baita Iberiar penintsulan ere. Kolonia horiek greziar hiriekin harreman estuak izan zituzten, eta merkataritza gune garrantzitsua bilakatu ziren. Kartagotarrekin borrokatu ostean aldendu ziren greziarrek Iberiar penintsulatik, K.a. 535. urtean.
- _ Kristo aurreko VI. mendean, Kartagotarrak heldu ziren Iberiar penintsulara, bertako aberastasunak erakarrita. Kartagotarrek Iberiar penintsulako hegoaldea menderatu zuten K.a. IV. mendean, Tastesostarren kultura suntsitu eta greziarrek joanarazi ostean; zilar asko atera zuten penintsulatik, baita gerretan laguntzen zieten mertzenario hispaniarrak ere.

2.3.2 Bigarren Gerra Punikoa Hispanian

Erromaren eta Kartagoren arteko Lehenengo Gerra Punikoa K.a. 264-241 urte bitartean izan zen. Gerra hori galdu ostean, kartagotarren eragina eta botere militarra murriztu ziren nabarmenki. Sei urte geroago, Barca familiaren agindupean, kartagotar armada indartsua heldu zen *Gadesera* (Cádiz). Erromak, kartagotarrak nagusitasuna berreskuratzen ari zirela ikusita, haiekin Ebroko ituna sinatu zuen K.a. 226an, mugak ezartzeko.

Kristo aurreko 219. urtean, Hanibal kartagotar jeneralak Sagunt hiria setiatu zuen. Urte bat geroago, hiri hori hartu, eta Erromarantz abiatu zen Pirinio eta Alpeetan zehar. Ekintza horrek eraginda, erromatarrak Iberiar penintsulara heldu ziren, beren Sagunt hiri

aliatuari laguntzeko aitzakiarekin. Une hartan, erromatarrek ez zuten lurralde hori konkistazeko asmorik, kartagotarrak eta Hanibal geraraztea baizik.

Gerra hamasei urtez luzatu zen. Hasieran, Kneo eta Publio Eszipion erromatar jeneralek Sagunt berreskuratu, eta kartagotarrak hegoalderantz joanarazi zituzten. Izan ere, Iberiar penintsulako herri batzuek erromatarren alde egin zuten, pentsatzen baitzuten erromatarrek kartagotarrengandik askatuko zituztela.

Kristo aurreko 211. urtean, ordea, kartagotarrek erromatarren jeneralak hil, eta galdutako lurralde gehiena berreskuratu egin zuten. Erromaren alde agertu ziren herriak ez ezik, kontra egin ez zutenak ere zigortu zituzten gogor kartagotarrek.

Kristo aurreko 210. urtean, Erromak Publio Kornelio (Eszipion familiakoa) jenerala bidali zuen aurrekoak ordezkatzeko. Jeneral horrek kartagotarrek zapal dutako herrien laguntza lortu, eta kartagotarren hiriburua (*Quart Hadasht*) menderatu zuen; menderatutako hiriari *Colonia Urbs Iulia Nova Cartago* izen erromatarra eman zion.

Iberiar penintsulan erromatarrak irabazten ari baziren ere, Italian, berriz, Erromako armadak ezin zuen Hanibal aurrez aurre irabazi, horrek behin eta berriro irabazten baitzuen zenbait herriren laguntzaz. Ez dago batere argi Hanibalek zergatik ez zion Erromari eraso egin. Batzuen ustez, ez zuen Erroma hartu nahi, Erromak berak amore ematea baizik; beste batzuen ustez, ez zeukan Erroma setiatzeko behar besteko tresneria. Nolanahi ere, hamar urte eman zituen Italian.

Kristo aurreko 206. urtean, erromatarrek Gades garaitu, eta kartagotarrak Iberiar penintsulatik bota zituzten betiko. Eszipionek gerra jarraitu nahi zuen Afrikan. Hara joan baino lehen, soldadu lizentziatu talde handi bat utzi zuen Hispanian, eta soldadu haientzat sortu zuen lehenengo erromatar kolonia: *Italica*. Orduan, Iberiar penintsulako ekialdea eta hegoaldea erromatar probintzia bihurtu zen, eta *Hispania* izena eman.

Eszipionek Afrika eraso ostean, Hanibalek Kartagora bueltatu behar izan zuen. Erromatarrek kartagotarrak garaitu zituzten Zamako guduan, K. a. 202. urtean.

2.3.3 Erromatarren aurkako erresistentzia

Erromatarrek Iberiar penintsulara heldu zirenean, ez zuten toki hori konkistatzeko asmorik. Baina, Kartago Nova eta hegoaldea konkistatuta, konturatu ziren ezen, Iberiar

penintsula menderatuz gero, etekin handia atera zezaketela. K.a. 197. urtean Hispaniako lurraldeak antolatu zituzten bi probintziatan: *Hispania Ulterior* (hurbilagoa) eta *Hispania Citerior* (urrunagoa).

Laster, bertako herriek ikusi zuten erromatarrekin kartagotarrekin bezain txarto bizi zirela, gero eta tributu gehiago ezarri baitzizkien probintzia-gobernu erromatarrak. Horrenbestez, hasierako herri aliatuak matxinatu egin ziren, baina alferrikako matxinada izan zen: batetik, borrokatze-teknikarik ez baitzeukaten; bestetik, herri bakoitza bere kabuz borrokatu baitzen.

Erromatarrek Iparralderantz eta mendebalderantz jo zuten, eta bidean aurre egin zieten herri gutxirekin topatu ziren: lusitaniarrak eta zeltiberiarrak, besteak beste.

Lusitaniarren aurkako gerra (K.a. 155-136)

Lusitaniarrak gaur egungo Portugalen eta Extremaduran bizi ziren; haien lurraldeak ez ziren nekazaritzarako egokiak, oso menditsuak ziren-eta. Betidanik, hegoaldeko herriei eraso, eta lapurtu egiten zieten etengabe. Baina garai hartan lur horiek erromatarren kontrolpean zeudenez, erromatarrek lusitaniarren aurkako gerra hasi zuten, han Erromaren aliatuak bizi zirela argudiatuta.

Kristo aurreko 150. urtean, lusitaniarren enbaxada batek bake-tratatua proposatu zion Sulpizio Galba erromatar pretoreari. Horrek lusitaniarrei lurrak banatuko zizkiela agindu zien, baina tranpa izan zen. Lusitaniarrak agindutako lursailetara joan zirenean, batzuk hil, eta bizirik iraun zutenak esklabo gisa saldu zituzten erromatarrek. Lusitaniar gutxik lortu zuten handik ihes egitea; haietako bat Viriato izan zen.

Kristo aurreko 147. urtean, Viriatok hainbat lusitaniar herri elkartu zituen berriro, eta hamabi urtez erabilitako gerrilla-estrategiak kalte handia eragin zien erromatarrei. Baina, K.a. 139. urtean, Viriatoren konfiantzako hiru taldekidek erail zuten, lo zegoen bitartean; seguru aski, erromatarrek erosita.

Eutropio historialariak, K.o. IV. mendean, Viriatoren hilketa azaltzerakoan, honela bukatu zuen: hiltzaileak erromatarren kanpamentura joan ziren sari bila; orduko kontsul erromatarrak handik bota zituen, eta esan: "*Nunquam Romanis placuit imperatorem a*

suis militibus interfeci” (Erromatarrei ez zaie gustatzen soldaduek beren buruzagia erailtzea). Gerora, esaldi hau nagusitu da :“Erromak ez die traidoreei ordaintzen”.

Zeltiberiarren aurkako gerra (K.a. 153-133)

Lusitaniarren aurkako gerra-urteetan, zeltiberiarrekin ere borrokatu ziren erromatarrek. Zeltiberiarrek hogeii urtez egin zioten aurre Erromari, eta Numantzian (Soria) babesten ziren ihes egiten zutenak.

Kristo aurreko 134. urtean, egoera jasanezina zenez, erromatarrek Numantzia setiatu egin zuten: lehendabizi, Numantziaren inguruko muinoetan zazpi kanpamentu eraiki zituzten; jarraian, dorreak eta murru sendo bat eginda, kanpamentuak lotu zituzten: 9 km-ko perimetrodun itxitura osatu zuten, lubaki sakona eta oholesia eraiki zituzten hiriaren eta kanpamentuen artean; eta, azkenik, Duero ibaia desbideratu zuten Numantziari ura murrizteko eta hiria guztiz isolatzeko.

Setioa hasi eta hamabost hilabete geroago, erromatarrek hiria garaitu egin zuten. Izan ere, zeltiberiarren buruzagiek nahiago zuten beren buruaz beste egin amore eman baino. Erromatarrek hiria suntitsu zuten, eta bizirik atera zirenak esklabo gisa saldu zituzten. Harrezkero, Numantzia inbaditzaileen aurkako erresistentzia-ikur bihurtu da.

Zeltiberiarrak eta lusitaniarrak menderatuta, konkistatutako lurraldeen muga Duero ibaian ezarri zuten erromatarrek.

Kantabriar eta asturiarren aurkako gerrak (K.a. 29- 19)

Kristo aurreko I. mendean Erromak Iberiar penintsula osoa menderatu zuen, iparraldea izan ezik. Haien arteko gerra zibilek geldiarazi zuten lurralde horren konkista:

- _ Kristo aurreko 80-72 urte bitartean, Sertorioren gerrak izan ziren. Erromak Hispaniaren kontrola galdu zuen zazpi urtez, probintzia hori estatu independentea bihurtu baitzuen Sertorio erromatar jeneralak. Pompeio Hispaniara etorri zen, lehengo egoera berreskuratzeko asmoarekin. Halere, Erromak ez zuen Hispaniaren kontrola lortu, harik eta Sertorioren taldekideek hura erail zuten arte.

- _ Kristo aurreko 49-41 urte bitartean, Pompeioren eta Zesarren arteko gerra zibila izan zen. Zesarrek irabazi zuen, eta handik gutxira erail egin zuten.

Oktavio Augustok agintea eskuratu zuenean, kantabriarrak eta asturiarrak menderatzea erabaki zuen, harentzat Hispania konkistatzea oso garrantzitsua baitzen. Horrez gain, probintziak berriro antolatzeaz arduratu zen:

- _ *Hispania Citerior* probintziari *Tarraconensis* izena eman zion, *Tarraco* baitzen hiriburua.
- _ *Hispania Ulterior* probintzia erdibitu, eta *Baetica* eta *Lusitania* sortu zituen Guadiana ibaiak berezita. *Baeticako* hiriburua *Corduba* izan zen; *Lusitaniakoa*, *Emerita Augusta*.

Kristo aurreko 27. urtean, Oktavio bera izan zen armadaren buru; baina, gaixotu ondoren, Tarragonara erretiratu, eta handik Erromatar Inperio osoa gobernatu zuen bi urtez. Erromara itzuli baino lehen, Hispanian Agripa erromatar jenerala utzi zuen bere ordean.

Kristo aurreko 19. urtean, Agripak kantabriarrak eta asturiarrak menderatu zituen. Azkenean, Hispania osoa erromatarra izan zen.

2.3.4 Erromanizazioa

Erromatarrek beren zibilizazioa, ohiturak eta hizkuntza hedatu zituzten, mundua konkistatzen joan ziren heinean; menderatutako herriek erromatar kultura bereganatu behar izan zuten. Erromatar kultura hedatzeari eta bereganatzeari esaten zaio erromanizazioa.

Hispania Ziterior eta Hispania Ulterior izandako lurraldeetan, hiri asko sortu zituzten erromatarrek: batzuetan, aurreko herriek sortutako hiriak eraberritu egiten zituzten (*municipium*); beste batzuetan, berriz, oin berriko hiriak (*colonia*) eraikitzen zituzten. Erromatik oso urrun egon arren, Hispaniako hirietan enperadoreen boterea sentitu egiten zen, gauza guztiak Erroman bezala egiten baitziren. Lurralde horietako hispaniarrak berehala egokitu ziren erromatarren bizimodura. Beraz, esan dezakegu hiria eta garraiobideak izan zirela erromanizazioaren eragile oso garrantzitsuak.

Iparraldeko eta barrualdeko herrietan, ordea, ez zen berdin gertatu, eta astiroago erromanizatu ziren. Nolanahi ere, K.o. II. mendean Hispania erromanizatuta zegoen. Han armada izan zen erromanizatzeko eragile nagusietako bat, arrazoi hauengatik:

- _ Batetik, erromatar armadarekin batera hainbat zibil ere heldu ziren Hispaniara: merkatariak eta artisauak etorri ziren, irabaziak lortzeko; kolonoak, lursail baten bila; beste batzuk, Erromatik ihes egiteko... Horietako zenbait hemen geratu, eta familia osatu zuten bertakoekin. Gauza bera egin zuten soldadu lizentziatu askok: lursail bat jaso edo erosi, eta Hispanian geratu betiko.
- _ Bestetik, kanpamentu militarren (*castra*) inguruan, gehienetan populazio-guneak sortzen ziren. Han bizi zirenek erraz hartzen zituzten erromatarren ohiturak eta hizkuntza. Batzuetan, soldaduak handik joan ondoren, kanpamentuak hiri bihurtzen ziren.
- _ Azkenik, hispaniar batzuek izena eman zuten armadan, horrek laguntzen baitzien bizimodua hobetzen eta erromatar hiritartasun-eskubidea lortzen.

2.3.5 Hispaniaren antolamendua

Bigarren Gerra Punikoa bukatu ostean, Iberiar penintsulako ekialdea eta hegoaldea erromatar probintzia bihurtu, eta *Hispania* izena eman zioten erromatarrek.

Kristo aurreko 197. urtean, konkistarekin jarraitu baino lehen, Hispania probintzia bitan zatitu zuten: Ziterior eta Ulterior. Probintziak gobernatzeko, propetore (*propraetor*) bana hautatu zuen Senatuak, kontsul eta pretore ohien artean. Propetore horiek Erromaren aurkako matxinadak eragotzi, eta herrien arteko istiluak baretu behar zituzten armadaren laguntzaz. Bestalde, zergak biltzeaz eta probintzia administratzeaz arduratu behar zuten *quaestorren* laguntzaz. Kuestore horiek propetorearen laguntzaileak eta ordekoak ziren.

Bi mende geroago, konkista bukatzeko zegoen, eta Augustok hiru zatitan berrantolatu zuen Hispania: Betika, Lusitania, eta Tarracoko Probintzia. Egitura hori mantendu zen K.o. III. mendea arte.

Kristo aurreko 214. urtean, Karakala enperadoreak Tarracoko Probintzia zatitu, eta *Gallaecia* (Galizia) probintzia berria sortu zuen.

293. urtean, Dioklezianok Erromatar Inperioa berrantolatu, eta bitan banatu zuen. Mendebaldeko Inperioa bi prefekturak osatzen zuten: Galiak eta Italiak. Galiako prefekturen barruan, hiru diozesi zeuden: Hispania, Britania eta Galiak. *Hispaniarum diocesis*a sei probintziak osatzen zuten: bost Iberiar penintsulan (Betika, Lusitania, Galizia, Tarracoko Probintzia eta Kartago Novako Probintzia) zeuden, eta seigarrena, Afrikan (Mauritania Tingitana).

385. urtean, Kartago Novako Probintziatik *Balearica* sortu zen .

2.3.6 Hispaniaren amaiera

III. mendeko krisialdian hasi ziren arazoak Hispanian. Ekonomiak porrot egin zuen arrazoi askorengatik (zergak, Ekialdeko portuen arteko lehia, lehengaiak agortzea, izurria, etab.), eta lehenengo germaniar inbasio-saldoak iritsi ziren.

IV. mendetik aurrera, egoera larriagotu egin zen. Jendea hiritik aldendu, eta landara joan zen, beste leku batzuetan gertatu zen antzera. Landan, ezer ez zeukatenak elkartu, eta lapurretan ibiltzen ziren herrietan eta etxaldeetan. Elkarre horiei *bagauda* izena eman zieten.

409. urtean, sueboak, bandaloak eta alanoak iritsi ziren Europatik. Honela kokatu ziren:

- _ Galizia aldean, sueboak bertakotu ziren, eta beren erreinua eratu zuten.
- _ Lusitania aldean, alanoak.
- _ Betikan eta Kartago Novako Probintzian, bandaloak.

Hispaniara heldu zirenean, herri barbaro horiek hispaniar-erromatarrek errespetatu zituzten, eta nekazaritzatik bizi izan ziren. Hispaniar-erromatarrek ere ez zuten barbaroen kontra ezer egin: erromatar administrazioaz gogaiturik zeuden; administrazio horrek egundoko zergak ordainarazten zizkien, baina biztanleak eta ondasunak ez zituen *bagauda* elkartekoengandik babesten.

415. urtean, Erromatar Inperioak herri barbaro bati eskatu zion laguntza, Hispania berreskuratzeko: bisigodoei. Bisigodoek Afrikanantz joanarazi zituzten bandaloak eta alanoak, baina sueboak Galizian geratu ziren 585. urte arte. Enperadoreak, laguntza horren truke, bisigodoei Galietako zati handi bat eman zien, eta, horrez gain, bisigodoek berek hartu zuten Hispaniako beste zati bat (Zaragoza, Iruñea eta Tarragona).

418. urtean, erromatarrek bisigodoak Inperioan txertatu zituzten, herri federatu gisa. Bisigodoen erreinuak Galietan zuen erdigunea, Hispanian zati bat egon arren.

476. urtean, Mendebaldeko Inperioa deuseztatu zenean, Hispanian eguneroko bizitza ez zen asko aldatu.

507. urtean, beste herri barbaro batek, frankoek, bisigodoak bota zituzten Galietatik. Horrexegatik ekarri zuten bisigodoek beren erreinua penintsulara.

*Erromako gizartea
eta erakundeak*

3

3.1 Erromako gizartea

3.1.1 Monarkia-garaia (K.a. 753-509)

Latindarrak Lazioko lurraldean hedatu zirenean, lortutako lurak banatu zituzten beren artean: garai hartan ez zegoen gizarte klaserik. Baina Erroma sortzearekin batera, hiritarrak eta hiritarrak ez zirenak bereizi egin ziren, estatus juridiko ezberdina baitzuten. Bi talde horien barruan ere, aparteko bereizketa egin zuten erromatarrek, jatorria eta ondasunak kontuan hartuta: hiritarrak *patricii*, *plebeii* eta *clientes* ziren; hiritarrak ez zirenak, *servi* eta *liberti*.

Patrizioak izan ziren lehenengo biztanleak, hau da, Erroma hiria sortu zutenak eta beren ondorengoak. Lurralde hoberenak zituzten, eta politika-erakundeetan parte hartzen zuten; beraz, Erromako aberats eta boteretsuenak ziren. *Gens* izeneko taldeetan elkartzen ziren patrizioak. *Gens* bateko kide guztiek arbaso ospetsu bera zutenenez, erritu berdinak praktikatzen zituzten; horrez gain, beren lurraldeak, ondasunak eta interesak elkarrekin defendatu behar zituzten besteengandik.

Plebeio izena eman zioten geroago Erromara heldu zen jendeari. Errege etruskoen garaian, plebeio kopurua izugarri handitu zen. Gehienak artisautzatik eta merkataritzatik bizi ziren; hala ere, lursail txikiak izatea lortu zuten gutxi batzuek. Plebeio guztiek zenbait eskubide eta pribilegio zituzten, hiritarrak ziren-eta; politika-erakundeetan, ordea, parte hartzerik ez. Eskubide guztiak lortzeko, patrizioen kontra agertu ziren.

Bezeroak (*clientes*) atzerritik etorritako herritar pobreak ziren. Gizaki libreak izan arren, nagusi edo ugazaba (*patronus*) jakin bat izaten zuten, eta hori kontratu baten bidez jasotzen zuen legeak. Patrizioak ziren ugazabak. Bezeroek hainbat gauza egiten zituzten babesaren eta laguntzaren truke: patrizioen lursailetan eta negozioetan lan egin, haien alde borrokatu, eta haien alde agertu foroan.

Esklaboak (*mancipium*) jabeen edo Estatuaren ondasuna baino ez ziren, eta ez zuten inolako eskubiderik: jabeen mende zeuden erabat. Gizaki libreak esklabo bihurtzen ziren, zenbait delitu eginez gero; eta, aurrerantzean, beren seme-alabak esklabo jaiotzen ziren. Monarkian ez zegoen esklabo askorik, baina Erroma hedatzen hasi zenean, gerretan atzemandako presoak esklabo egin zituzten.

Liberti izenekoak esklabo ohiak ziren, baina ez zitzairen hiritar-estatusik onartzen; bai, ordea, haien seme-alabei. Batzuetan, esklaboak zahartzen zirenean, jabeek askatu egiten zituzten, baliagarriak ez baitziren; beste batzuetan, esklaborik kutunenek askatasuna lortzen zuten jabearen testamentuan; eta zenbaitetan —gutxitan gertatzen bazen ere— esklaboek beren askatasuna erostea lortzen zuten. Gerora, esklabo ohi horiek jabearen bezero (*cliens*) izaten ziren, gehienetan.

3.1.2 Errepublika-garaia (K.a. 509-31)

Errepublika-garaia hasi zenean (K.a. 509), plebeioak patrizioak baino askozaz gehiago ziren. Hala ere, plebeioek ez zuten eskubide politikorik. Patrizioek erabaki guztiak hartzen zituzten, baina plebeioen dirua eta laguntza behar zuten erabaki garrantzitsuak aurrera ateratzeko, hau da, Italia menderatzeko. Plebeioek, horren truke, eskubide berak izatea eskatu zieten patrizioei. Eskubide horiek lortzeko, hainbatetan greba militarra egiten zuten, edo desertatu. Egoera zailenetan, Erromatik denak batera irten, eta joan egiten ziren, *Mons sacrum* izeneko lekuan hiri berria sortzeko. Orduan, plebeioek eskatutako zerbait eman behar izaten zuten patrizioek. Azkenik, plebeioek beren eskakizun guztiak lortu zituzten, bata bestearen atzean .

Kristo aurreko III. mendean, Erromako hiritar guztiek, oso behartsuak izan arren, eskubide berak zituzten: jabetza izatea, bozkatzea, kargu publikoetarako hautagaiak izatea, legeen babespean egotea, magistratuen erabakien aurka apelatzea...

Bost urtetik behin, errolda egiten zen, hiritar bakoitzaren gizarte taldea (*ordo*) edo klasea ziurtatzeko.

Hiritarren arteko bereizleak ondasunak eta ospea izan ziren. Horien arabera, talde hauek sortu ziren:

- *Optimates* taldea. Horien arbasoek Senatuan parte hartu omen zuten, Monarkia-garaian. Patrizioek eta plebeiorik aberatsenek (*nobilitas*) osatzen zuten talde hori. Administrazioan goi-mailako karguak izaten zituzten, eta politikan aritzen ziren.
- *Equites* gizarte-taldea. Armadan zaldia izateko besteko baliabide zuten hiritarrak ziren. Bigarren mailako patrizioek osatzen zuten talde hori, baita lanari esker

aberastu ziren plebeioek ere. Administrazioan erdi-mailako karguak betetzen zituzten, eta negozioetatik bizi ziren.

- *Plebs* izeneko taldea gainerako hiritar guztiek osatzen zuten. Bizimodua ateratzeko, bezero (*cliens*) moduan egiten zuten lan. Ondasunak galdu ostean, hirietara etorritako nekazari txiroak ziren gehienak. Ondasunen arabera, zenbait klasetan sailkatzen ziren; haietako txiroenak *proletarii* ziren.

Hiritarrak ez zirenak sistematik kanpo geratzen ziren. Era askotakoak ziren:

- *Peregrini*. Hirian zeuden kanpotar guztiak ziren; bai betiko etorritakoak, bai denboraldi baterako etorritakoak. Merkataritzan eta eskulangintzan aritzen ziren, batez ere. *Praetor peregrinus* (atzerritarrentzako epailea) baten kontrolpean zeuden, eta estatus ezberdinak izan zituzten jatorriaren arabera; esaterako, Italiar penintsulakoek gainerakoek baino eskubide gehiago zituzten.
- Esklaboak eta libertoak. Erroma Mediterraneoan zehar hedatzearekin batera, esklabo kopurua izugarri handitu zen; hiriko biztanleriaren heren bat inguru izaten ziren. Esklabo horiek leku askotan egiten zuten lan: meategietan, nekazaritzan, eraikuntzan, etxeetan eta abarretan. Espartakoren matxinadaren ostean, esklabo kopurua murriztu egin zen: esklabo asko matxinadan hil ziren; beste asko, ondorengo zigorragatik. Matxinada horren ondorioz, krisi ekonomikoa larriagotu egin zen, ez baitzegoen langile nahikoa.

3.1.3 Inperio-garaia (K.a. 31-K.o. 476)

Inperioaren lehenengo urteetan, gizarte-mailak ez ziren aldatu. Esklabo kopurua handiagotu egin zen, konkista berriei esker. Bestalde, liberto batzuek aberastu, eta oso kargu garrantzitsuak bete zituzten administrazioan.

II. mendean, Erromako gizartearen sailkapena berregituratu egin zen. Batetik, *honestiores* izeneko pertsona aberatsak, boteredunak eta goi-mailakoak zeuden: *optimatesek* (patrizioak eta *nobilitas*) eta *equitesek* (zaldia zutenak eta aberastu ziren plebeioak) osatzen zuten talde hori. Bestetik, *humiliores* izenekoak: *plebs* taldekoak eta libertoak; hau da, behe-mailakoak, boteregabeak eta behartsuak.

III. mendeko ekonomia-krisiagatik, aberatsen eta behartsuen arteko aldea gero eta handiagoa izan zen. Txiroek ez zeukaten zergak ordaintzeko beste; aberatsek, berriz,

beren ondasunak handiagotu zituzten, Estatuari lursailak erosita. Desoreka horren ondorioz sortu ziren gizarte gatazkak.

212. urtean, Karakala enperadoreak hiritartasun-eskubidea eman zien Inperioan bizi ziren gizaki libre guztiei. Mementu hartan, lehen ez bezala, hiritarrek zergak ordaintzen zizkioten Estatuari, krisiari aurre egiteko; horrenbestez, hiritar izatea ez zen hain pribilegio handia.

Bestalde, gero eta zailagoa zen esklaboak menderatzea; beraz, erromatar askok askatu egin zituzten. Hirietan, txiroenek (*proletarii*) egin zuten esklabo haien lana, soldata txiki baten truke. Latifundioetan, nekazari behartsuek; nekazari horiei kolono (*coloni*) esan zitzairen. Kolonoak ez ziren lurren jabeak, haiek landu arren; baina, jabearen babesaren eta laguntzaren ordainean, lurrari lotuta geratzen ziren betiko, baita haien ondorengoak ere. Horrenbestez, esan dezakegu antzinako esklaboen eta Erdi Aroko glebako jopuen antzekoak zirela kolono haiek.

3.2 Erromako politika-erakundeak

3.2.1 Monarkia-garaia (K.a. 753-509)

Herrixka latindarretan, seguru asko, gizon guztien artean hartzen zituzten beharrezko erabakiak, biltzarrean batuta eta zaharren iritziak entzunda. Geroago, K.a. VIII. mendean, herrixka guztien artean *Septimontium* izeneko erakunde politiko bakarra osatu zuten. Hortik sortu zen Erroma.

Erromaren lehenengo gobernua hiru erakunde hauen inguruan antolatu zen: erregea (*rex*), Senatua (*Senatus*) eta Biltzarra (*Comitia curiata*).

Erregetza hautapenezko kargua izan zen, baina bizitza osorako. Erregeek botere asko eskuratu zituzten: armadaburuak ez ezik, epaile gorenak, administratzaileak eta legegileak ere izan ziren. Edozein erabaki hartu baino lehen, Senatuak esandakoa entzun behar izaten zuten. Lan horiek guztiak egiteko, laguntzaileak izan zituzten. Nolanahi ere, erregeen betebeharr nagusia hauxe zen: *Pax deorum* (jainkoarekiko bakea) mantentzea; horregatik, edozein erabaki hartu baino lehen, iragarpen bidez asmatu behar zituzten jainkoen nahiak.

Gens nagusietako buruek (*pater familias*) osatu zuten Senatua. Esan daiteke zaharren kontseilua izan zela; izan ere, *Senatus* hitza *senex* (zaharra) hitzetik omen dator. Erregeari aholkua emateaz gain, hura hilda, hiria gobernatzeaz arduratu, eta hurrengo erregea proposatu behar zion Biltzarrari. Etruskoen garaian, erregeekin izandako liskarren eraginez, Senatuak boterea galdu zuen, eta desagertzeko egon zen.

Erromako hiritar guztiek osatzen zuten Biltzarra; hasieran, Kuria Biltzarra (*Comitia curiata*) zuen izena, eta horretan patrizioek bakarrik hartzen zuten parte. Haren funtzio nagusiak hauek ziren: gai zibilak nahiz militarrek lantzea, eta Senatuak proposatutako erregea onartzea eta izendatzea. Errege etruskoek Kuria Biltzarra Zenturia Biltzar (*Comitia centuriata*) bihurtu zuten: Zenturia Biltzarrean, patrizioek ez ezik, plebeioek ere har zezaketen parte; hots, Etruriatik eta alboko lurraldeetatik etorritako zenbait biztanle berrik. Dirudienez, aldaketa horren helburua patrizioen indarra ahultzea zen; halere, ez zuten hori lortu, patrizioek hartzen baitzituzten erabakiak, botazio-sistemari esker.

3.2.2 Errepublika-garaia (K.a. 509-31)

Esan bezala, monarkiaren ostean errepublika izan zen Erromako gobernu-sistema berria: *Senatus populusque romanus* (Senatua eta erromatar herria). Garai hartako erakundeak magistraturak, Biltzarra eta Senatua izan ziren..

Errepublikako lehenengo urteetan, bi magistratuk (*consules*) ordezkatu zuten erregea: horixe izan zen aldatetik nabarmenena. Kotsulek erregeen funtzioak betetzen zituzten, baina ezin zuten urtebete baino gehiago iraun karguan. Haien lana, ordea, ez zen erraza, zeren eta biren artean adostu behar baitzituzten erabaki guztiak. Biltzarrak aukeratzen zituen kotsulak hautagaien artean, besteak beste. Kotsulen eta Biltzarraren gainean, Senatua zegoen, erakunde haren betebeharren artean ondoko hauek zeuden-eta: herri kontuak eta legeen aplikazioa kontrolatu; Biltzarraren erabakiak berriz onetsi, indarrean sartzeko; eta kotsulen eginkizuna ikuskatu. Laburbilduz, kotsulek boterea izan bazuten ere, garai hartan Senatua izan zen erakunderik boteretsuena.

Ikusten denez, patrizioek beren gain hartu nahi izan zuten botere osoa, baina plebeioek ez zuten egoera hori luzaroan onartu. Izan ere, plebeioak eta beren ondasunak ezinbestekoak ziren Erromak egindako hedatze-politikarako, patrizioak baino askoz

gehiago baitziren. Horren jakitun egonda, plebeioek eskubideak eskatu, eta pausoz pauso lortu zuten politika-berdintasuna.

Lehendabizi, plebearen bi tribunoak (*Tribuni plebis*) izendatu ziren K.a. 494. urtean, tradizioaren arabera; aurrerago, hamar izan ziren magistratu horiek. Herriaren interesak babesten zituzten patrizioengandik; horretarako, beste magistratuek hartutako erabakiak indarrrik gabe uzteko ahalmena zuten. Tribunoak ikutuezinak (*sacrosancti*) izan ziren: tribunoen kontra zerbait egiten zuena edonork erail zezakeen, zigorrik jasan gabe. Oso boteretsuak izan arren, tribunuek ez zuten inolako eskumenik izan Erromatik kanpo.

Ondoren, Plebe Biltzarra (*Concilium plebis*) eratu zen. Biltzar hori sortu zenean, haren funtzio nagusia tribunoak aukeratzea eta izendatzea izan zen. Tribunoek bakarrik dei egin ziezaioketen Plebe Biltzarrari, horren iritzia eta kezkak entzuteko. K.a. 471. urtean, botazio-sistema aldatu egin zen; orduan, Plebe Biltzarra eta Herri Biltzarra batu, eta Tribu Biltzar (*Comitia tributa*) izena hartu zuen.

Azkenik, kontsulen funtzioak magistratura berrietan banatu ziren, eta plebeioak magistratura horiek betetzeko eskubidea bereganatzen joan ziren. Karrera politikoan, (*cursus honorum*) mailak zeuden: magistraturak. Ordenan pasatu behar zen batetik bestera; derrigorrean jarraitu beharreko ordena hauxe zen: *quaestores*, *aediles*, *praetores*, *consules* eta *censores*. Gutxienez pertsona bik bete behar zuten magistratura bakoitza, eta magistratu horiek ezin zuten urtebete baino gehiago iraun karguan, zentsoreak izan ezik, errolda bost urtean behin egiten baitzen. Magistratu ohiek senatari izatea lor zezaketen: horrela heldu ziren plebeioak Senatura.

Baina hedatze-politikaren ondorioz, Erroman bertan arazo larriak sortu ziren, eta militarrek eskuratu zuten agintea.

K.a. 82. urtean, Luzio Kornelio Sila militarrek Italiar penintsula konkistatu zuen. Horren ostean, Erromara heldu, eta diktadore-kargua hartu zuen, herriak Biltzarrean onartutako lege baten bidez. Lege horrek ahalmen asko eman zizkion: ondasunak konfiskatu, etxaldeen eta probintzien mugak aldatu, magistratuak izendatu, agintaldiaren iraupena erabaki.... Baina Silaren helburu nagusia Senatua berritzea eta indartzea zen; hori dela eta, hainbat lege aldatu zituen, baita tribunoen eta kontsulen agintea murriztu ere. K.a. 79. urtean erretiratu, eta, urtebete geroago, hil egin zen. Tamalez, Silak egindako ahalegin guztiak aintzat hartu ez, eta berriro sortu ziren arazoak.

Kristo aurreko 45. urtean, Julio Zesarrek irabazi zuen Ponpeio jeneralarekin izandako gerra zibila; Senatuaren eta herriaren oniritzia izan ostean, Senatuak diktadore izendatu zuen hamar urterako. Gobernari bakarra izan zenez, erreforma asko egin zituen Zesarrek: batzuk, probintzietan sortutako hainbat arazo konpontzeko; beste batzuk, magistratuen eta Senatuaren agintea murrizteko. Ez dago argi errege-kargua beretzat hartu nahi zuen ala ez; nolana ere, Zesarren portaerak eta jarrerak hori adierazten zuten. Beraz, hasieran haren alde agertu ziren senatariak azpijokoan ibili, eta hil egin zuten, K.a. 44. urtean.

Julio Zesar hil eta gero, Marko Antonio (Zesarren ordezkari militarra) eta Oktavio (Zesarren ondorengoa) –elkarren arteko desadostasunak gaindituta– batu egin ziren, Zesarren hilketa mendekatzeko eta boterea hartzeko. General biek triunbiratu (*Triumviratus*) izeneko elkarte osatu zuten, Marko Lepidorekin (Zesarren aldeko militar bat) batera. Hirurek beren kontrako guztiak desagerrarazi, eta Senatu berri zuten; jarraian, triunbiratuak boterea hartu zuen, lege baten bidez: batetik, Senatuak kontsul izendatu zituen hiru *triumvirak*, baina edozein agintariri baino botere gehiago emanda; bestetik, bost urteko agintaldia izan arren, beste bost urtez iraun zezaketen karguan. Gauzak horrela, hiru gizon horien artean banatu zituzten Errepublikako lurraldeak. Triunbiratu horrek iraun zuen harik eta Marko Antonioren eta Oktavioren arteko gerra zibila sortu arte K.a. 38. urtean.

3.2.3 Inperio-garaia (K.a. 31-K.o. 476)

Triunbiratua hasi zenetik, Oktavio politikari ona izan zen; ahalegin handiak egin zituen balio tradizionalak berreskuratzeko, baita Erromaren agintea finkatzeko eta indartzeko ere. Izan ere, K.a. 31. urtean, Oktaviok gerra zibila irabazita, erromatarrek goraiatu egin zuten. Egoera horretaz baliatuz, erregeen edo buruzagi absolutuen ahalmen gorenekin gobernatu zuen Oktaviok, baina aurreko sistema apurtu gabe.

Kristo aurreko 27. urtean, Senatu batzartuta zegoen egun batean, aginte militarri eta politikari uko eginda, Oktaviok aginpide osoa itzuli zion Senatuari; baina, herriak eskatuta, Senatuak agintea Oktaviori eskaini behar izan zion berriro. Orduan, erromatar herriak eta erakundeak babestuta, Oktaviok, astiro-astiro, hainbat aldaketa egiteari ekin zion: batzarrak, Senatu eta magistraturak mantendu zituen, baina horiek

independentzia galdu egin zuten, *princeps* izeneko kargu baten mende geratu baitziren. Oktaviok bere gain hartu zituen kargurik garrantzitsuenak, bizitza osorako:

- _ *Imperator*: armadaren kontrola (*imperium*)
- _ *Princeps*: Errepublikako lehen herritarra eta Estatuko agintari gorena
- _ *Pontifex maximus*: erlijioburua

Esan bezala, Errepublikako erakundeak ez ziren deuseztatu, baina benetako gobernuia Oktavioren esku zegoen; Oktaviok berak gobernatu zuen, konfiantzako laguntzaileek aholkatuta (*concilium principis*) eta guardia pretoriarrak babestuta. Erromako gobernuaz ez ezik, probintzietakoez ere arduratu zen; izan ere, Erromako agintearen eta lurralde-autonomiaren arteko oreka lortu zuen, hartutako neurriei esker.

Liskarrak saihesteko eta eratutako gobernu sistema berriak bere horretan jarraitzeko, ondorengotza dinastikoa ezarri zuen Oktaviok. Horren arabera, enperadorearen semea zen oinordekoa; baina, semerik izan ezean, hurbileko senitartekoen artean bat aukeratu, eta adopziozko seme izendatu behar zuen, hil aurretik.

Kristo aurreko 96. urtean, Komodo erail zuten; oinordekorik ez zuenez, Senatuak Nerva senataria izendatu zuen enperadore. Bi urte geroago, hautazko ondorengotza ezarri zuen Nervak: enperadoreak herriaren aurrean izendatzen zuen bere oinordekoa. Oinordekoa nor izango zen erabakitzeko, gaitasuna eta prestakuntza gehiago hartzen ziren kontuan lagunarteko edo familiarteko loturak baino.

Kristo ondorengo 293. urtean, Dioklezianok bi partetan antolatu zuen Erromatar Inperioa, eta zenbait prefekturak osatzen zuten parte bakoitza; prefektura horien barruan diozesiak zeuden, eta probintzia batzuek osatzen zuten *diocesis* bakoitza. Enperadorea Erromatar Inperio osoaren jauna zen: lur-jabeen eta txiroen jauna (*Dominus*).

305. urtean, Diokleziano enperadoreak tetrarkia izeneko gobernu sistema taxutu zuen, krisialdia saihesteko. Lau pertsonen arteko gobernuia adierazten du *tetrarkia* izenak. Izan ere, bai Ekialdean bai Mendebaldean, enperadore bana (*augustus*) eta ordezkari militar bana (*zesar*) ezarri zituen.

312. urtean, Konstantino enperadoreak botere osoa hartu zuen, eta aurreko sistemara itzuli zen: tetrarkia desagertu egin zen.

3.3 Erromako armada

3.3.1 Armadaren garrantzia

Erroma potentzia handia bilakatu zen armadari esker, besteak beste. Esan bezala, Erroma hedatzearekin batera, armadak funtzio bikoitza izan zuen: menderatzeko tresna eta erromanizazioaren eragilea.

Menderatzeko tresna moduan, hasierako okupatzea baino hainbat zeregin gehiago bete zituen; adibidez, zergak kobratu, mugak babestu, herri menderatuak baketu, eta abar.

Erromanizazioaren eragile moduan, soldaduek kanpamentuak (*castra*), zubiak, akueduktuak eta galtzadak eraiki zituzten. Eraikitze-lan hori egin bitartean, hizkuntza eta ohiturak hedatu zituzten, inguruan sortu ziren merkataritzagunei eta hiriei esker. Erromatar soldaduak, lursailak jaso edo erosita, bertan geratzen ziren lizentziatu ostean. Erromanizazioaren beste ezaugarri bat hau izan zen: herri menderatuetako gizonak armadan sartzeko aukera.

Beste herri batzuk menderatzeaz gain, Erroma bera menderatu zuen armadak. Ezin dugu ahaztu K.a. I. mendean hainbat diktadura eta gerra zibil egon zirela (Sila, Zesar...). Armadak, krisialdian, enperadoreak izendatzeko ahalmena lortu zuen Inperio osoan.

3.3.2 Armadaren bilakaera

Monarkia-garaian, soldadutza patrizioen eskubidea eta betebeharra zen. Nork bere armak eta mantenua ordaindu behar zituen, soldatarik jaso gabe. Gehienetan, kanpainak udaberrian hasi, eta udazkenean amaitzen ziren.

Servio Tuliok, Erromako seigarren erregeak, aldaketa garrantzitsuak egin zituen gizartean, eta aldaketa horiek eragin handia izan zuten armadaren antolamenduan. Hortik aurrera, plebeioek ere izan zuten armadan sartzeko eskubidea eta betebeharra. Armada legioetan banatu zuen: legio bakoitza 4.200 oinezkok (*pedites*) eta 300 zaldizkok (*equites*) osatzen zuten.

Errepublik-garaian zehar, soldaduek gero eta denbora gehiago ematen zuten etxetik kanpo; horrexegatik ezin izan ziren familiaz, etxaldez eta lanaz arduratu. Hori dela eta, Estatua hasi zen soldaduei *stipendiuma* ematen, hau da, mantenua eta soldata.

Kristo aurreko I. mendean, soldadutzari derrigortasuna kendu egin zitzaion, armada profesionalizatu baitzen. Orduan, lursailak eta ondasunak eskuratzeko, aukera bikaina bihurtu zen armada erromatarrentzat. Garai hartan, armadak tropa laguntzaileak (*auxilia*) sortu zituen; tropa haietako soldaduak menderatutako herrietakoak ziren, eta hiritartasuna lortzeko ematen zuten izena armadan. Hasieran, Italiar penintsulako herriak (aliatuak edo *soccii*) bakarrik onartu zituzten; geroago, herri barbaroak ere bai. Tropa laguntzaileetako soldaduak beren etxetik urrun bidaltzen zituzten, matxinadetan parte har ez zezaten.

Erromatar Inperioko lehenengo urteetan, soldadutza egiteko denbora-tartea luzatu, eta soldadu kopurua hazi egin zen. Horrekin batera, pretoriar guardia sortu zen, hau da, enperadorearen guardia pertsonala. Enperadorearen konfiantzazko prefektu baten gain zegoen mila gizonen inguruk osatutako guardia hori. Soldadu horiek legionarioek baino soldata eta begirune handiagoa izan zuten. Pretoriarren kuartelak Erromatik oso hurbil zeuden.

Kristo ondorengo III. mendeko krisialditik aurrera, askotan gertatu zen soldadutza berriro derrigorra izatea. Horrek ekarri zuen, besteak beste, jendea landara joatea, soldadutza saihesteko.

3.3.3 Soldaduen bizitza

Soldadu berriek izena ematen zuten bezain laster, kanpamentu batera bidaltzen zituzten eskarmentu handiko soldaduekin egoteko, inolako prestakuntzarik eman gabe. Izan ere, kanpamentuetan bizimodua nahiko gogorra zen, baita borrokatzen ez zirenean ere.

Kanpamentuetan, zortzi soldadu bizi ziren denda batean; horiek guztiak *contubernium* izeneko taldea osatzen zuten. Egunsentia baino lehen, altxatu, jantzi eta desfilatu egiten zuten, gosaldu gabe. Horren ondoren, ofizial batek soldaduak ikuskatu, eta aginduak ematen zizkien.

Gero ia egun osoa honako hauek egiten ematen zuten: sasoian jartzen (zuhaitzak moztu, oztopoak gainditu...), gudu-zelaian erabiliko zituzten maniobrak egiten (lerro paraleloetan ibili, zirkuluak egin, lerroak hurbildu eta urrundu...) eta armak erabiltzen. Horrez gain, hilero, gauza guztiak hartuta, 30 kilometroko ibilaldiak egiten zituzten. Halaber, ezin da ahaztu soldaduek kanpamentuak eraikitzen zituztela, baita zubiak, akueduktuak eta galtzadak ere.

Eguzkia sartzen zenean, soldaduek afaldu egiten zuten: otordurik garrantzitsuena zen. Afaldu ostean, kanpamentutik irten zitezkeen, zaintzarik ez bazeukaten. Hiria hurbil egonez gero, hara joaten ziren ondo pasatzeko; bestela, kanpamentuan bertan geratzen ziren.

3.3.4 Soldadu motak

Erromatar armada hainbat soldadu motak osatu zuten: legionarioak, tropa laguntzaileak, zalditeria eta itsas armada. Guztiek uniforme berdina zeukaten, garai hartako gainerako soldaduek ez bezala. Tunika laburra erabiltzen zuten; hotz eginez gero, kapa luzea janzten zuten, eta hori manta moduan erabiltzen zuten gauean. Oinetan, *caligae* izeneko sandaliak erabiltzen zituzten. Horrez gain, armadaren atal bakoitzak berezko ezaugarriak zituen.

Soldadu erromatarrek legioak osatzen zituzten. Lerrokatzean, honela jartzen zen legio bakoitza: lehenengo lerroan eskarmentu gutxiko tropak zeuden; bigarrenean, tropa trebatuak; hirugarrenean, eskarmentu handikoak. Legionarioek ekipamendu hau zeukaten borrokatzeko: kaskoa (*galea*), metalezko eta larruzko koraza (*lorica*), eskutu karratua (*scutum*), bi ahoko ezpata laburra (*gladius*) eta bi lantza mota (*pilum* eta *hasta*).

Tropa laguntzaileek, aliatuek eta menderatutako barbaroek, berriz, ezpata luzeak eta eskutu obalak erabiltzen zituzten. Armadura gutxiago eramaten zuten, gainerakoak baino arinago mugi zitezkeen, baita errazago hil ere. Tropa laguntzaileek, jatorrien arabera, arma bereziak erabiltzen zituzten. Adibidez, siriarrak arkulariak ziren; Balearretakoak, habailariak.

Zaldizkoak (*alae*) tropa laguntzaileen uniformearen erabiltzen zuten; horrez gain, lantza eta belaun arteko galtzak. Zaldizkoen lana oso garrantzitsua zen erasoetan, patruiletan eta etsaien ihesetan. Garai hartako guduetan, estriburik ez zegoenez, oso zaila zen zaldiak kontrolatzea. Hasieran, erromatar aberatsak ziren zaldizkoak, baina horien kopurua txikia zenez, barbaroek osatu zuten geroago armadaren atal hori. Hamar zaldizkok osatzen zuten unitate bat, eta horren burua dekurioi izeneko ofiziala zen.

Erromak itsas armada ere izan zuen, baina soldadutza han egiteak ez zuen osperik ematen; horregatik, aliatuek eta barbaroek osatu zuten armada zati hori. Itsas armadakoek *tirreme* izeneko itsasontziak erabili zituzten. Ontzi horien arma nagusiak hauek izan ziren: *rostruma*, dorreak eta *corvusa*.

- _ *Rostruma* brankan zegoen luzapena zen, eta ariete moduan erabili zuten.
- _ Dorreetatik jaurtigaiak botatzen zituzten.
- _ *Corvusak* kakoak ziren; horien bidez, etsaien ontziak hurbildu, eta lotu egiten zituzten, gero abordatzeko eta gorputzez gorputz borrokatzeko.

Hasieran, itsas armada kartagotarren kontra borrokatzeko sortu zuten; gero, merkataritzako ontzidia, itsaslapurretatik babesteko eta Mediterraneo osoa menderatzeko.

3.3.5 Borrokatzeko teknikak armadan

Erromatar armadan diziplina eta trebatze-lanak oso gogorak ziren. Borrokatzean, era jakin batean jartzen ziren beti, eta nagusien aginduak betetzen zituzten, txintik esan gabe. Adibidez, lur zabalean etsaien aurka egin behar bazuten, erdian legionarioak kokatzen ziren —tropa laguntzaileak inguratuta—, eta alboetan, zaldizkoak.

Eraso egiteko orduan, *testudo* (dordoka) izeneko formazioa egiten zuten; hau da, soldaduek lauki batean formatu, eta, oskol bat osatuko balute bezala, elkar babesten zuten eskutuekin. Horrela, ez zituzten zauritzen ez geziek, ez lantzek, ez harriek, ezta irakiten zegoen olioak ere.

Etsaiak hiri edo kanpamentu batera atzera egiten zutenean, lekua setiatu egiten zuten, Numantzian egin zuten moduan. Garai hartan lehegailurik ez zegoenez, katapulta, arieteak eta baleztak erabiltzen zituzten.

3.4 Erromako zuzenbidea

Monarkia-garaian, ohiturazko zuzenbideak bideratu zuen erromatarren bizikidetza. Arbasoen ohituretan (*mos maiorum*) oinarritutako arauak azaldu, eta belaunaldiz belaunaldi transmititu egin ziren. Legea eta erlijioa lotuta zeuden; auzietan, *pontificesek* lagunduta, erregeak ematen zuen epaia, gehienetan patrizioen alde.

Errepublik-garaian, K.a. 451-449 urte bitartean, *Lex duodecim tabularum* izeneko legea idatzi zen. Araudi horrek plebeioen eta patrizioen arteko borroka amaitzea ekarri zuen, eta, legearen aurrean, hiritar guztien berdintasuna bermatu egin zen. Senatuak Hamabi Tauletako Legea idazteko, hainbat urrats eman zituen: lehenengo, hiru gizon

bidali zituen Greziara informazio bila; gero, Erroman, hamar magistratuk (*decemviri*) kodea sortu zuten; azkenik, Zenturia Biltzarrak onartu zuen. Bi mendez egon zen indarrean, eta, gerora, zuzenbide erromatarraren oinarria izan zen. Erromatarrek hortxe bildu zituzten lehenengo aldiz beren eskubideak eta betebeharrak. Legeak bi taldetan zeuden banatuta: zuzenbide publikoa eta zuzenbide pribatua. Zuzenbide publikoak (*ius publicum*) Erromatar Errepublikako antolamenduari zegokion guztia arautzen zuen, hala nola, magistraturen eta erakunde politikoaren eskumenak. Zuzenbide pribatuak, ordea, hiritarren arteko harremanak: jabetza, familia, merkataritza...

Legeez gain, prozedura judizialak ere arautu zituzten erromatarrek zehatz-mehatz. Auzietan, auzi-jartzaileak eta demandatuak hartzen zuten parte. Auzi-jartzailea pertsona bakarra zenean, pretoreak erabaki behar zuen epaiketa beharrezkoa zen ala ez. Epaiketa egitekotan, parte-hartzaileek adostu behar zuten nor izango zen epailea. Epaileak epaia eman behar zuen, indarrean zeuden legeak kontuan hartuta. Auzi kriminaletan, demandatuak Biltzarrera jo zezakeen, epaiarekin ados egon ezean.

Errepublika-garaian, gizartea bilakatu egin zen: legeak eta prozedurak egokitu behar izan ziren. Orduan, Hamabi Tauletako legeaz gain, pretoreen ediktuak eta plebiszituak ere izan ziren zuzenbide erromatarraren iturriak: legeak eta adituen iritzia kontuan hartuta, ediktuak ziren urte jakin bateko magistratuek ezartzen zituzten irizpideak; plebiszituak, Tribu Biltzarretan egindako arauak.

Garai hartan ere, gizartea ez ezik, eremu geografikoa ere aldatu zen, Erromak Italiar penintsula eta, oro har, Mediterraneo (*Mare nostrum*) konkistatu zuen neurrian. Hori dela eta, K.a. IV. mendean, Lazioko hiritar guztiei bigarren mailako hiritartasun-eskubidea (*ius latii*) eman zien Erromak; hala eta guztiz ere, K.a. II. mende arte ez zen arautu *ius gentium* izeneko legea, hau da, atzerritarren egoera eta hiritarrekin izan zitzaketen harremanak.

Inperio-garaian, enperadoreek egin zituzten legeak, eta Senatuak onartu. Halere, Inperioko probintzietako funtzionarioek irizpide argiak behar zituzten. Horregatik, *Constitutio* izeneko araudiak erabili ziren garatutako legeak, prozedurak eta erabakiak biltzeko eta sistematizatzeke.

Mendebaldeko Inperioa desegin zenean, Europa feudalean zuzenbide germaniarra nagusitu zen. XII. mendearen inguruan, egoera aldatu egin zen: erregeak konturatu ziren jauntxoei eta elizari errazago kenduko zizkietela hainbat ahalmen, zuzenbide

erromatarra erabilia. Harrezkero, mendebaldeko estatu guztietan zuzenbide erromatarra hartu zen oinarri gisa, harik eta XIX. mendean estatu bakoitzak bere legeak eta konstituzioa eratu arte.

Bizitza pribatua **4**

4.1 Familia

4.1.1 *Gensak eta pater familiasak*

Erromatar familia zibilizazioaren oinarria zen. Erroma hiriaren hasierako garaian, arbaso bera zuten familia guztiek *gens* izeneko taldeetan elkartu ziren, elkarri laguntzeko. *Gens* horren eskumena zaharrenari zegokion, eta familia guztien *pater familias*ek osatutako kontseiluak laguntzen zion erabakiak hartzen. *Gens* horietatik kanpo ere, *pater familias*ek aparteko zereginak zituzten: kargu publikoak. Legeak senide kopuru jakin bat eskatzen zuen *pater familiasak* izateko, eta hori betetzen zutenek bakarrik bete zitzaizkien hainbat kargu publiko. Zenbat eta kargu gehiago eskuratu, orduan eta boteretsuagoa zen *gens* hori.

Etxearen barruan, *pater familiasak* bere gain zituen emaztea, seme-alabak eta esklaboak; baita bezeroak eta *libertoak* ere. Familia osoa mantendu, eta gizartearen aurrean haren ordezkari agertzen zen. Hasierako garaian, aitak etxean botere absolutua zuen (*patria potestas*); denboraren poderioz, aitaren ahalmenak murriztu egin ziren. Halere, *pater familiasak* zenbait ahalmen izan zituen beti, hala nola, familiako kide berriak onartzea edo ez.

4.1.2 Familia eta senideak

Erromatar familian, afektuzko eta odolezko loturak ez ziren beharrezkoak. Horregatik, *pater familiasak* senide berriak onar zitzakeen adopzioaren bidez, familiari hala komeni bazitzaion; baita senideak bota ere, haien portaera lotsagarria bazen familiarentzat. Era berean, edozein pertsonak bere familia utzi, eta beste familia bat aukera zezakeen, gizartean gora egiteko.

Semea edo alaba jaiotzen zenean, emaginak aitaren oinetan jartzen zuen; aitak lurretik jaso behar zuen, umea familian onartzeko. Aitak jaioberria onartzen ez zuenean, esklaboek leku jakin batzuetan abandonatzen zuten, eta handik edonork har zezakeen, esklabo edo prostituta bihurtzeko. Inork hartu ezean, hil egiten ziren.

Aitak umea onartu eta zortzi egun geroago, *lustratioa* egiten zen. Zeremonia horretan, umea babesteko, kutunez betetako poltsa bat (*bullā*) ematen zioten, eta horrekin batera, izena.

Erromako hiritarren izenak hiru osagai (*tria nomina*) zituen: *praenomen* (izena), *nomen* (abizena) eta *cognomen* (izengoitia). Izena norberarena zen; abizena, familiarena; izengoitia, berriz, jatorriagatik, ezaugarri fisikoren edo akatsen batengatik ipintzen zioten. Neskatoek abizena baino ez zuten hartzen; familia berean bat baino gehiago egonez gero, izenondo baten bidez bereizten zituzten.

Semeak 17 edo 18 urte betetzean, beste erritu bat ospatzen zuten, umea gizon egin zela adierazteko. Ospakizun horretan, aitak mutilari *toga virilisa* ematen zion. Harrezkero, hiritartasuna lortzen zuen, heldua zen-eta.

4.1.3 Familiako errituak eta kultuak (*sacra privata*)

Erromatarrek, guk guztiok gaur egun egiten dugun bezala, segurtasuna bilatzen zuten beren eguneroko bizitzan. Dena den, haientzat guretzat baino zailagoa zen, segurtasun-polizak asmatu gabe zeuden-eta. Beraz, erromatarrek txikitatik ikasten zuten familia babestu egin behar zela, aurrera jarrai zezan; horretarako, etxeko arbasoen eta jainkoen laguntza ezinbestekoa zen: *pater familiasak* segurtasuna ematen zieten errituak (*sacra privata*) egiten zituen, baita gorde eta transmititu ere. Hori dela eta, edozein etxebizitzatan ikus zitezkeen arbasoak eta erromatarren jainkoak irudikatzen zituzten imajina hauek:

- Lareek edo etxe-jainkoek (*lares*) familiaren etxebizitza, ondasunak, aberastasuna eta patua babesten zituzten. Etxean bertan zegoen jainko hauek gurtzeko aldarea (*lararium*), eta familia etxebizitzaz aldatuz gero, berekin eramaten zuten.
- Penateek (*penates*) ziurtatzen zuten etxean janaria egongo zela. Oparotasun adarra zeramaten bi gaztek irudikatzen zituzten penateak.
- Maneak (*manes*) familiako hildakoen arimak ziren.
- Jainua (*genius*) familiaren aitaren zaintzailea zen; *pater familiasak* bere aitagandik jaso, eta semeari pasatu egiten zion, familiak iraungo zuela adierazteko. Suge itxuraz irudikatzen zen. Indar horren jainko sinbolikoa Jano zen, etxearen bi sarrerak jagoten zituen bi aurpegiko jainkoa.

4.2 Senar-emazteak: ezkontza eta dibortzioa

Erromako heldu gehienak ezkonduak ziren; ezkongabe gutxi zeuden. Ezkontzaren helburua seme-alabak izatea zen, familiak iraun zezan; maitasunak ez zeukan zerikusirik horretan.

4.2.1 Ezkontzaren baldintzak

Legeak ezkontza (*connubium*) onar zezan, hiru baldintza bete behar zituzten ezkongaeiek: gutxieneko adina, gurasoen baimena eta hiritartasuna.

Ezkongaeiek adin jakin bat behar zuten izan, ezkondu ahal izateko: neskatok hamabi urte izan behar zituzten, eta mutilek, hamasei. Halere, nagusitxoago ezkontzen ziren, ezkontzaren helburua seme-alabak izatea zen-eta.

Bigarren baldintza gurasoen baimena zen. Izan ere, ezkontza gurasoek erabaki eta antolatzen zuten, ezkongaien iritzia kontuan hartu gabe: familiak gizartean gora egiteko bidea besterik ez zen ezkontza; horretan, maitasunak ez zeukan zerikusirik. Errepublikagarian, ezkongaeiek nahitaez onartu behar zuten gurasoen erabakia; inperio-garian, berriz, neskek eta mutilek egon behar zuten ados ezkontzarekin.

Azkenik, ez zegoen *connubium* egiterik, *ius connubii* izeneko eskubide barik; hiritarrek bakarrik zuten eskubide hori. Aipatu behar da legeak ez zituela onartzen *connubium*etik kanpo jaiotako umeak, hau da, ume ez-legitimoak. Beraz, eskubide hori ez zutenek beste elkarte mota bat osatzen zuten, eta haien seme-alabek ez zeukaten inolako eskubiderik.

4.2.2 Ezkontza motak

Errepublikako lehen garaian, bi ezkontza mota izan ziren: *conventio in manum* eta *sine manu* izenekoak.

Conventio in manum horretan, emakumeek, ezkontzen zirenean, uko egiten zioten beren aitaren aginteari eta beren familiaren gurtzari, senarraren familiarena onartzeko, familia horretako alaba izango balitz bezala. Ezkontza mota horretan hiru aukera hauek zeuden: *confarreatioa*, *coemptioa* eta *ususa*. Lehenengoan, *confarreatio* izenekoan, Jupiterren apaiz baten aurrean opil bat (*panis farreus*) jaten zuten ezkongaeiek; beraz, ezkontza

guztiz erlijiosoa eta hautsiezina zen. Bigarrean, *coemptio* (erosketa) izenekoan, zenbait lekukoren eta funtzionarioen (*librepens*) aurrean egiten zen; senargaiak emaztegaia erosten zuela ematen zuen. Hirugarrean, *usus* (erabilera) izenekoan, ezkongaiak urtebetez elkarrekin bizi ondoren, senar-emazte bihurtzen ziren.

Bestalde, *sine manu* ezkontza mota zegoen. Ezkontza mota horretan emakumeak bere aitaren agintepean jarraitzen zuen; beraz, ondorengotza-eskubideak eta ondasunak gordetzen zituen. Errepublikako azken urteetan, gehienak bide hori jarraituta ezkondu ziren.

4.2.3 Ezkontzaren erritua

Ezkontza zeremonia bidez egiten zenean, familia biek eta ezkongaiak pauso jakin batzuk eman behar zituzten, bai ezkondu aurretik, bai zeremonian bertan, baita ezkontzaren ostean ere.

Lehenengo, eraztun bat eta ezkontzeko hitza ematen zioten elkarri ezkongaiak (*sponsalia*). Gero, data egokia aukeratu behar zuten gurasoek, haien ustez datak bikotearen zoriontasunean eragina izan zezakeen-eta.

Ezkontza aurreko gauean, emaztegaia bere kutunez betetako poltsa (*bullae*) eta jostailuak eskaintzen zizkien etxeko jainkoei, edo Venus jainkosari.

Ezkontza egunean (*nuptiae*), emaztegaia honela agertzen zen: artilezko gerriko batez estututako tunika luze eta zuri bat jantzita eta paramenta purpura edo gorri batek estalita. Zeremoniarekin jarraitu baino lehen, abere bat hiltzen zuen neskaren aitak, jakiteko *auspicia* onak ziren ala ez (eta, ondorioz, jainkoek zein aldarte erakusten zuten). *Auspicia* txarrak izanez gero, bertan behera uzten zen ezkontza; onak baziren, berriz, paper batzuk (*tabulae nuptiales*) sinatu behar zituzten hamar lekukok. Zeremonia bukatzeko, ezkongaiak erritu hauek egiten zituzten, eskutik helduta: *coemptio* edo *confarreatio* izenekoak.

Ezkontzaren ostean, eztei-oturuntza egiten zen (*cena nuptialis*) emaztearen etxean. Afariaren amaieran, bahiketa-itxura eginda (*deductio*), senarrak emaztea amaren besoetatik lapurtu, etxe berriraino eramanez, eta barrura sartzen zuen, besoetan hartuta. Senarraren lagunek atzetik laguntzen zieten prozesioan, algaraka. Dirudienez, ohitura horren jatorria sabinarren bahiketa zen.

4.2.4 Dibortzioa

Hasieran, ezkontzak nekez apurtzen ziren: ezkontzean, emakumeek beren familiari uko egiten ziotenez, senarrak emaztea zapuzten bazuen (*repudium*), egoera oso larrian geratzen zen. Hori dela eta, jokabide hori ez zen oso onartua izan; gutxitan gertatzen zen. Batzuetan, senarrak tratu txarra eman arren, emaztea etxean geratzen zen, ez baitzeukan nora joan.

Errepublikako azken urteetatik aurrera, berriz, emakumeen egoera hobetu egin zen: ezkondu ondoren, bere familiaren mende jarraitzen zuen, eta ez zituen bere ondasunak galtzen. Horrek ondorio hauek ekarri zituen: gizartearen iritzia aldatzea eta dibortzioa maizago gertatzea.

4.3 Emakumearen egoera

Erromatar emakumeek gizon bat izaten zuten beti tutore gisa: aita, senarra edo horretarako izendatutako tutorea. Ez zuten eskubide politikorik izan, hau da, ezin zuten erakundeetan parte hartu, ezta botorik eman ere.

Txikitatik, neskek eta mutilek heziketa ezberdina jasotzen zuten. Neskek, gerora begira, etxeakoandre izaten ikasi, eta etxean geratu behar zuten ezkondu arte. Behin ezkondu, etxeako zereginenez arduratzen ziren: seme-alabak hezi, etxea eta esklaboak gobernatu, eguneroko erosketak antolatu, etab.

Errepublikaren amaierako tarte horretatik aurrera, emakumeek, familiari eta ondasunei eustearekin batera, askatasun maila handiagoa lortu zuten: batetik, lagunarteko jaietan eta ikuskizunetan hartzen zuten parte senarrarekin; bestetik, senarrik gabe irteten ziren erosketak egiteko.

4.4 Heziketa

Sei edo zazpi urte bete arte, umeak amaren edo haurtzain baten ardurapean egoten ziren, eta egun osoa jolasean ematen zuten etxean. Geroago, heziketa hasten zen.

Monarkian, gurasoak arduratzen ziren heziketaz; seme-alabei irakasten zieten nola jokatu behar zuten gizartean eta zein ziren erromatar printzipioak (luxurik ez, ardura, legei eta gurasoei begirunea, sendotasuna, jainkozaletasuna...).

Errepublikan, gizartea aldatu zenean, heziketa egokitu behar izan zen, gizartearen eskakizun berriei erantzuteko. Eredu greziarra aukeratu zuten erromatarrek, greziar kultura miresten baitzuten. Opor luzeak izan arren (udan, abenduan eta martxoan), ikasturtea oso gogorra zen: asteko egun bat kenduta, gainerako guztietan irakaslearen etxera joaten ziren egunsentiarekin batera, eta egun osoa ematen zuten han. Ez zegoen eskolak emateko leku berezirik: irakaslea aulki batean esertzen zen (*cathedra*), eta ikasleak, eserleku tolesgarrietan. Hezkuntza hiru mailatan zegoen antolatuta: lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta goi eskola.

Lehen hezkuntzan, zazpi-hamaika urte bitarteko umeek *ludi magister* izeneko irakaslearekin ikasten zuten; gehienetan, greziar *libertoa* zen, eta oso diru gutxi ordaintzen zioten. Eskola horiek hartzea ez zen derrigorra, ezta dohainik ere; baina, ahal izanez gero, gehienek *magister* horiengana bidaltzen zituzten semeak, pentsatzen baitzuten komenigarria zela oinarrizko trebetasunak lantzea. Hori ikusita, K.o. II. mendean, Hadriano enperadoreak dirulaguntza eman zien txiroenei, eskolak hartzeko aukera izan zezaten: idazten, irakurtzen eta zenbatzen ikasten zuten umeek. Trebetasun horiek lantzeko, hainbat tresna eta baliabide erabiltzen zituzten: idazteko, argizari geruza batez estalitako taulatxoak (*tabulae*) eta puntzoia (*stilus*); zenbartzeko, hatzak eta abakoa; irakurtzeko, *Hamabi Tauletako Legea*. Azkenean, buruz ikasten zuten lege hori. *Paedagogus* izeneko esklaboak laguntzen zien umei eskolara; batzuetan, gauzak eramateko beste esklabo batek ere bai.

Bigarren hezkuntzan, familia aberatsetako hamabi-hamasei urte bitarteko mutilek *grammaticus* izeneko irakaslearekin ikasten zuten. Maila horretan, greziar eta latindar literaturaren bidez, ederto ikasten zuten irakurtzen eta testu baten iruzkina egiten. Horrez gain, merkataritzarako eta bidaiak egiteko behar zituzten ikasgaiak ikasten zituzten: Grekoa, Geografia, Historia, etab.

Goi-eskolara, oso gazte gutxi joaten ziren, politikari izan nahi zutenak (*cursus honorum*) baino ez. Ikaslea hamasei urterekin hasten zen, eta lau urte ematen zuen Oratoria, Filosofia eta Zuzenbidea ikasten. Goi-eskolako irakasleak (*rhetor*) irakasten zien nola azaldu behar zituzten beren iritziak besteak konbentzitzeko (nola antolatu ideiak eta nola argudiatu) eta jendaurrean nola hitz egin behar zuten besteak erakartzeko (ahotsaren tonoa eta enfasia, gorputzaren jarrera eta keinuak). Hogei urte betetzean, batzuk Greziara joaten ziren, hango irakasle ospetsuekin ikasten jarraitzeko.

Eredu horretatik kanpo, zientziak eta ikasketa teknikoak geratzen ziren, Dena den, horiek ere ikas zitzaketen erromatarrek: eskola berezietara edo aditu batengana jo behar zuten ikastun moduan.

Bestalde, kulturaz ez ezik, heziketa fisikoaz ere arduratu ziren erromatarrek; izan ere, garai hartatik etorri zaigu gaur egun hain ezaguna den esaera: “*Mens sana in corpore sano*” (“gogamen osasuntsua, gorputz osasuntsuan”). Gazteek egunero ariketa fisikoak egiten zituzten gimnasioan (*palaestra*): disko-jaurtiketa, xabalina-jaurtiketa, borroka, lasterketak, etab. Horrelaxe mantentzen ziren sasoiari, gero armadara joateko.

4.5 Hiritarren bizitza

Numa Pompiliok, Erromako bigarren erregeak, egutegi bat antolatu zuen, lanegunak (*fas*) eta jaiegunak (*nefas*) bereizteko. Urteak pasa ostean, batez ere herri-bizitza egituratzeko zehaztu zen egutegi hori.

Bestalde, erromatarrek denbora neurtzen zuten, eguzkia kontuan hartuta. Eguna (eguzkia irteten zenetik ilunabarrera arte) hamabi ordutan banatzen zen. Gauak (eguzkia sartzen zenetik hurrengo eguneko egunsentira arte) lau zati edo beila zituen; zati horiek kanpamentuen zaintza-txandekin lotzen ziren. Nolanahi ere, urtaroen arabera, orduen eta beilen iraupena aldakorra zen.

Egunsentiarekin batera, erromatarrek altxatu, jantzi, eskuak eta aurpegia garbitu, eta gosaldu egiten zuten. Emakumeek, horrez gain, makillatu eta ilea oso ondo apaindu behar zuten.

Gosaria oso arina zen; gehienetan, ogi puska bat eta edalontzi bete ur. Jarraian, nor bere betebeharrez arduratzen zen: umeak eta gazteak irakaslearen etxera joan, emakumeek etxeko lanak antolatu, eta gizonek beren lanbideei lotutako zereginak betetzen zituzten. Hirietan, ekonomia eta lanbideak hiru ardatz nagusiren inguruan eratzen ziren: politika, merkataritza eta artisautza. Halere, gizon askok ez zeukaten ogibiderik; noizean behin enkarguren bat egiten zuten norbaitentzat, bestela ezer egin gabe ematen zuten egun osoa. Gauzak horrela, inperio-garaian goizeko agurra (*salutatio matutina*) orokortu egin zen: bezeroak ugazabaren etxera joaten ziren, eta horrek janaria eta dirua banatzen zien. Edozein modutan ere, gizon horiek guztiak forora edo merkatuko enparantzara joaten ziren: langabetuak, lan bila; gainerakoak, negozioak egiteko. Izan ere, foroa hiriko gune ekonomikoa eta politikoa zen.

Eguerdian, *hora sextan*, bazkaldu (*prandium*) egiten zuten: haragia edo arraina eta frutaren bat. Horren ostean, siesta egiten zuten. Esnatutakoan, bainua hartzen zuten etxean edo bainuetxeetan (*balnea*), eta orduantxe hasten zen beren aisialdia.

Arratsaldeko seiak inguruan, *hora nonan*, eguneko une garrantzitsuena heltzen zen: afaria (*cena*). Afaria, otordua baino oturuntza zen; jaki asko eta landuak hartzen zituzten erromatarrek; afalostean, musika eta dantza egoten zen. Askotan, gonbidatuak izaten zituzten etxean.

4.6 Aisia

Bazkalostean, erromatarrek lanaldia bukatutzat jotzen zuten, eta hortik aurrera aisialdia hasten zen. Asko gustatzen zitzaien *termae* izeneko gizarte-etxeetara joatea.

Horrez gain, jaiegunetan gobernariak ikuskizun asko ordaintzen zituzten (*ludi publici*), hiritarren atxikimendua lortzeko: Errepublikan, botoak irabazteko; Inperioan, ekonomia eta politika ahaztuta, bake sozialari eusteko. Ikuskizunen artean, bi hauek bereizi behar ditugu: *ludi circensesak* eta *ludi scaeniak*. *Ludi circenses* izenekoak anfiteatroan (*amphitheatrum*) edo zirkoan (*circus*) egiten ziren; *ludi scaeni* izenekoak, aldiz, antzokian (*theatrum*).

4.6.1 Termak

Termak aisialdiarako eraikuntza erraldoiak ziren. Han, bazeuden bainua hartzeko gelak, baita kirol-jarduerak egiteko gimnasioak (*palaestra*), liburutegiak, aretoak, dendak eta lorategiak ere.

Hasteko, gizonak —gazteak, gehienbat— *palaestrara* joaten ziren. Han, lagunekin kirol-jarduerak egiten zituzten (borroka, lasterketak, eskrima, etab.); ariketa horiek ez zituzten hartzen entrenamendu moduan, jolas moduan baizik.

Palestratik aldageletara joan (*apodyterium*), eta han biluztu egiten ziren. Eserleku luze bat egoten zen, eta, ormetan, aterik gabeko hobi batzuk. Aldageletako zaintzailei eskupekoa eman ondoren, hobi banatan uzten zituzten arropak eta bestelako gauzak.

Hortik gela epelera (*tepidarium*) joaten ziren. Orman bertan zegoen eserlekuan jartzen ziren, berotasunera egokitu arte. Izan ere, ur beroko bainugelara (*caldarium*) sartzeko igarobidea zen *tepidariuma*.

Ur beroko bainugelan, aurreko gelan baino bero askosaz handiagoa egiten zuen. Han, lehenengo, bainua hartzen zen bazter batean zegoen igerilekuan. Batzuetan, lurrunbainuak hartzeko gela txikiago bat egoten zen (*laconicum*). Gero, bainu-hartzailea marmolezko ohe batean etzanda, esklabo batek gorputza olioz igurtzi, eta ezpurutasunak kentzen zizkion metalezko espatula batekin (*strigilis*). Jarraian, masaje-emaileak ukenduak ematen zizkion, gorputza freskatzeko. Azkenean, *caldariumean* bertan zegoen iturri batean, bainu-hartzaileak ur freskoaz kentzen zuen ukendua.

Jantzi baino lehen, *frigidariumera* (ur hotzeko igerilekua) joaten ziren igeri egitera. Zenbait termatan, estalperik gabe egoten zen *frigidariuma*. *Caldariumetik* irten, eta *tepidariumera* joaten ziren berriro, tenperatua-aldaketa hain gogorra izan ez zedin. Han, gorputza hoztu arte itxaroten zuten; bitartean, zerbait jan eta edan zezaketen, nahi izanez gero.

Bainua hartzeko lekuetan, gizonak eta emakumeak ez zeuden elkarrekin; bereizitako lekuak egoten ziren. Bestela, ordu jakin batzuetan emakumeentzat irekitzen ziren termak, eta beste ordu batzuetan, gizonentzat.

Caldariumean eta *tepidariumean* tenperatura egokia izateko, greziarrendik ikasi zuten berotze-sistema erabili zuten. Grekoek, ura berotzeko, labeak zeuzkaten ur-biltegi handi batzuen azpian; giro-tenperatura gordetzeko, sutontziak ipini zituzten *tepidariumean* eta *caldariumean*, baina ez zuten lortu zorua berotzea. K.a. I. mendean, erromatar batek konpondu zuen arazo hori, *hipocaustis* izeneko berotze-sistemaren bidez. Labea zoru azpiko ganbera batean eraikitzen zen; ganbera horren eta termen zoruaren artean, *tabuli* izeneko adreiluzko habe txikiak egoten ziren. Labea pizten zutenean, hango aire beroak gorantz jo, habeartetik igaro, eta goiko gelen zorua berotzen zuen. Geroago, sistema hobetu egin zuten, *caldariumaren* eta *tepidariumaren* ormetan aire-ganbera eraikita. Berotze-sistema hori etxebizitzetan ere erabili zuten, eguraldi hotzeko probintzietan batez ere.

4.6.2 Gurdi-lasterketak

Badirudi gurdi-lasterketek emakume sabinarren bahiketan zutela oinarria. Sabinarrak erakartzeko, Romulok jokoak antolatu zituen jainko baten ohorean; harrezkero, gertakizun horren oroimenez, erromatarrek urtero desfilea egiten zuten jainko haren aldare aurretik. Urteak pasa ondoren, zaldiak ahalik eta azkarren eramaten saiatzen ziren

gidariak; horren ondorioz, desfilea lasterketa bilakatu zen. Hala eta guztiz ere, lasterketek erlijioarekin zeukaten lotura hori ez zen guztiz galdu, zeren eta lasterketak hasi baino lehen *pompa* izeneko desfilea egiten baitzen. *Pompa* horretan, aurreko aldean, lasterketa ordaintzen zuen magistratua eta haren bezeroak joaten ziren; erdian, jainkoen irudiak eta apaizak; atzeko aldean, gurdiak.

Gurdiak txikiak ziren, eta bi edo lau zaldik tiratzen zuten haietatik (*bigae* edo *quadrigae*). Gidaria (*auriga*) zutik joaten zen, arropa babesgarriak jantzita eta bridak gerrian bilduta. Gurdiak gorpildun kutxa handiak baino ez ziren, eta gidariak baino pisu gutxiago izan zezaketen. Gainera, ez zegoen debekatuta gidari batek beste bati eraso edo bultza egitea; beraz, askotan gurdiak irauli, eta gidariak hil egiten ziren. Horregatik, ez da harrizkoa libertoak *auriga* izatea, gurdien jabeen ordeztan (patrizioak eta plebeio aberatsenak).

Gurdi-lasterketak zirkuan egiten ziren. Eraikuntza hori greziarren hipodromoan oinarrituta zegoen. Zirkua obala zen; erdian, ardatz moduan, harrizko murrua (*espina*) zegoen; horren inguruan, pista (*area*). Lasterketa bakoitzean, pistari zazpi bira ematen zitzaizkion: pistaren alde batean, irteera-lekua (*carcer*) zegoen, eta bestean, helmuga (*meta*). Lau taldek hartzen zuten parte; talde bakoitza kolore jakin bati lotzen zitzaion: gorria, zuria, urdina eta berdea. Pistaren inguruko harmailetan esertzen ziren ikusleak, eta nork bere gustuko taldea animatzen zuen; Erroman egiten ziren joko guztietatik, gurdi-lasterketek zuten jarraitzaile amorratu gehien.

4.6.3 Gladiadore-jokoak, *venationes*ak eta naumakiak

Ikuskizun horiek guztiak egiteko, erromatarrek anfiteatroak asmatu eta eraiki egin zituzten. Greziar antzokia oinarri izanda, horren egitura bikoiztu egin zuten, *amphi* greziar aurrizkiak (*bi*) adierazten duen bezala. Anfiteatroen barnealdea honela zegoen banatuta: oinplano eliptikoa izaten zuten; erdian, ikuskizunak egiteko gunea (*area*); horren inguruan, harmailak (*cavea*). Horiek ez ezik, anfiteatro handienetan hainbat gela eta korridore (*carceres*) ere egon zitezkeen harearen azpian, tronadura batez estalita. Haietan, gladiadoreek zein animaliek itxoiten zuten hareara ateratzeko unea, eta *areara* igotzeko karga-jasogailuaren antzeko tramankulu bat gordetzen zen.

Anfiteatroetan, ikuskizun ohikoenak gladiadoreen artekoak izan ziren. Badirudi borroka horien jatorria Etrurian egon zela eta etruriar soldaduek, Lazio konkistatuta, Erromara

eraman zutela. Soldadu horiek elkarren aurka borrokatzen ziren, goi-mailako hildakoen omenez. Geroago, erritu-kutsua galdu, eta gladiadoreen jokoak ikuskizun hutsa bilakatu ziren: gladiadoreek bizia galtzen zuten, ikusleak diberti zitezten.

Gauzak horrela, gladiadore-eskolak sortu ziren; *lanista* izeneko pertsona batek gerrako presoan edo hiltzera kondenatutako behe mailako pertsonen artean bilatzen zituen gladiadore izango zirenak. Aukeratutakoek izena eman, eta plebearen tribunoaren aurrean zin egin behar zuten *lanista* horren mende geratzen zirela. Harrezkero, lanista arduratzen zen haien prestakuntzaz eta mantenuaz. Horregatik, jokoak antolatzeko, *lanista* horiengana jotzen zuten politikariek eta enperadoreek.

Jokoak zeuden egunetan, anfiteatroan olana handiak zabaltzen ziren txirrika-sistema baten bidez, eguzki izpietatik babesteko; ikusleak gizarte-kategorien arabera esertzen ziren: aberatsak, hareatik hurbil; txiroak, berriz, goian. Dena prest zegoenenan, gladiadoreak hareara sartu, desfilatu, eta agurtu egiten zuten jokoak ordaintzen zituena. Hori dela eta, gaur oso ospetsua da esaldi hau: “*Ave, Cesar, morituri te saluntant*” (“*Zesar, hilko direnek agurtu egiten zaituzte*”). Eta orduantxe hasten ziren jokoak.

Ekitaldi baten barruan, buruz buru, bikoteka zein taldeka borroka zitezkeen gladiadoreak. Horiek zeramatzaten armen eta babesgarrien arabera sailkatzen ziren. Ondoko hauek ziren haietariko batzuk: *retiarri* izenekoek sare eskerga eta hiruhortza baino ez zituzten erabiltzen; *murmillones* izenekoek, ezpata, ezkutu handia eta arrainaren irudia zeukan galiar kaskoa; samniotarrek, ezpata laburra, koraza eta kaskoa; traziarrek, sablea, koraza eta ezkutu txiki biribila; *equites* izenekoak zaldiz borrokatzen ziren, etab. Bi gladiadoreen arteko borrokan, bata lurrera bizirik erortzen bazen, jokoaren presidenteak hartzen zuen bestea hiltzeko erabakia, ikusleen iritzia kontuan hartuta; adoretsua eta ausarta zenari barkatzen zitzaion bizitza. Irabazten zuenak palma-adarra jaso, eta hareari bira oso bat ematen zion. Jokoetan hainbat urte eman ondoren, bizirik ateratzen zen gladiadoreari egurrezko ezpata eta askatasuna ematen zitzaion, sari moduan.

Erromatar anfiteatroetan, gladiadoreen borrokaldiak ez ezik, beste ikuskizun hauek ere egoten ziren:

*Venationes*ak. Lurralde guztietatik ekarritako hainbat animalia arraro erakusten hasi ziren anfiteatroan, animaliak ikusteak izugarri harritzen baitzituen ikusleak. Baina denboraren poderioz, ohitu egin ziren. Orduan, basapiztiak hareara atera, eta elkarren

arteko borrokak antolatzen hasi ziren, baita basapiztien eta borrokarako entrenatutako gizonen artekoak ere.

Naumakiak (*Naumachiae*). Ontzien arteko borrokak ziren; horretarako, harea urez bete behar zen. Irudiak egon arren, ez dago guztiz argi anfiteatroetan egin ziren ala ez. Denbora-tarte txikian egin ziren horrelako ikuskizunak, oso garestiak baitziren. Lehenengoa laku artifizial batean antolatu zuen Julio Zesarrek, eta, K.o. I. mendearen ostean, ez ziren berriro egin.

4.6.4 Antzerkia

Jaiegunetan, antzerkia ere egoten zen. Hasieran, monarkia-garaian, zirkuan eta horretarako eraikitako behin behineko estrukturetan egiten ziren antzezpenak; geroago, errepublika-garaian, erromatar hiri garrantzitsuenetan antzokiren bat edo beste eraiki zuten, gaur egun ezagutzen ditugunak, hain zuzen ere.

Erromatar antzokiak greziarren antzekoak izan ziren. Eraikuntza horien atal nagusiak ondoko hauek izan ziren: *cavea*, *orchestra* eta *scaena*.

Cavea harmailek osatzen zuten zirkuluerdia zen. Batzuetan, lursailen desnibelean egiten zituzten; besteetan, horretarako egitura eraiki behar zuten. Ikusleek, beren eserlekuetara (*subsellium*) heltzeko, eskailera (*scalaria*) eta korridore batzuetatik (*praecinctiones* eta *vomitoria*) igo behar zuten. Bost mila ikusle inguru sartzen ziren han.

Orchestra, abesbatzarako lekua, harmailen behealdean egoten zen, eta, harmailek bezala, zirkuluerdi-itxura zuen. Greziarrentzat hori zen leku garrantzitsua, baina erromatarrek, berriz, ia ez zuten ezertarako erabiltzen.

Scaena osatzen zuten *orchestaren* aurrean zeuden hainbat elementuk. Elementu horien artean, eszenatokia (*proscenium*) eta dekoratua (*scaenae frons*) ziren garrantzitsuenak. Eszenatokia tronadura (*pulpitum*) baten gainean zegoen; tronadura horren azpian, *hyposcaenium* izeneko ganbera zegoen, tresneria gordetzeko. Dekoratua *scaenaren* atzeko aldean zegoen: orma bat zen, *cavea* bezain altua eta jauregi baten aurrealdearen antzekoa. Bestalde, *scaenaren* atzeko aldean, zutabez inguratutako lorategia egoten zen (*porticus post scaenam*), atsedendietan aktoreak eta ikusleak paseatzera irteteko.

Antzokiak oso eraikuntza handiak ziren: bost mila pertsona inguru sartzen ziren. Horiez gain, erromatarrek antzoki txikiago batzuk eraki zituzten, musikaldiak eta poesia-errezitalak eskaintzeko.

Erromatarrentzat, antzerkia beste ikuskizun bat baino ez zen; greziarrentzat, berriz, zentzu hezitzailea eta guztiz erlijiosoa izan zuen. Halere, lehenengo antzezlanak greziar lanen itzulpenak ziren; geroago, erromatar antzerkigileen lanak antzeztu ziren, komediak gehienbat, tragediak baino askozaz gustukoagoak izan baitzituzten erromatarrek. Tragediak eta komediak ez ezik, beste antzezlan mota batzuk ere egon ziren, hala nola, *pantomima* (dantzaren eta operaren arteko antzezlana) eta imintziolariak.

Aktoreak gizonak ziren beti, baita emakumeen paperetan ere. Askotan, paper bat baino gehiago betetzen zituzten aktoreek. Antzezenetan, mozorrotzeaz gain, aurpegia estaltzen zuten pertsonaia tipikoei zegozkien maskarekin; esaterako: erregea, agurea, esklaboa, etab.

Erljioa **5**

5.1 Ezaugarri nagusiak

Erromatarren erlijioa ez zegoen sinesmen pertsonalei lotuta, ezta balio-araudi jakin bati ere: estatuarekin eta familiarekin ezartzen zituen loturak, eta errituetan oinarritzen zen. Hori dela eta, gaur egungo ikuspuntutik oso zaila da Erromako erlijioa ulertzea.

Erromatarren ustez, jainko-jainkosei esker lortu zuen Erromak alboko herriak menderatzea; nagusitasun horri eusteko, ezinbestekoa zen *Pax deorum* (jainkoekiko bakea) mantentzea. Beraz, erromatarrek itsu-itsuan betetzen zituzten tradizioak agindutako errituak.

Jainko-jainkosei beldur handia zieten; horregatik, menderatutako herrien kultuak eta jainko-jainkosak onartu, eta gurtu egiten zituzten. Horrek erlijioaren bilakaera ekarri zuen.

5.2 Erljioaren bilakaera

5.2.1 Monarkia-garaia

Hasierako erromatarrek, beste zibilizazio zahar guztiek bezala, azalpen mitikoa ematen zioten ulertzen ez zutenari. Izan ere, naturaren funtzionamendua eta handitasuna ikusita, pentsatzen zuten ezen naturaren fenomenoak (urtaroak, euriak eta abar) gizakien antzekoak zirela, hau da, nortasuna, izaera, helburuak eta nahiak zituztela. Horrekin batera, esaten zuten fenomeno horiek eta gizakien ekintzak espirituen edo indar boteretsuen (*numina*) mende zeudela. Horregatik, espirituen aldarte txarrak saihesteko eta haien babesela lortzeko, jainkotu egiten zituzten, eta etxean zein naturan bertan gurtu.

Gurtza pribatuaz gain, gurtza publikoan ere erromatarrek erritu- eta jainko-zerrenda luze-luzea zeukaten; hauek ziren garrantzitsuenak:

- _ naturaren jainkoak: *Tellus* (lurra), *Ceres* (garia, uzta), *Vulcanus* (suaren jainkoa), *Saturnus* (denboraren jainkoa), *Liber* (mahastien eta ardoaren jainkoa), *Flora* (loreen jainkosa), *Faunus* (artaldean eta zelaien emankortasunaren jainkoa) eta *Terminus* (mugarrien jainkoa)
- _ familiaren jainkoak: *Vesta* (etxeke suaren jainkosa) eta *Iuno* (*Iupiter*ren emaztea, ezkontzaren eta emakume haurdunen babeslea).

- _ gerraren jainkoak: *Iupiter* (jainko-jainkosen aita eta aginte gorena) eta *Marte*.

Bestalde, Erromak harremanak izan zituen greziarrekin eta etruriarrekin, hiria sortu zenetik. Greziarren eraginagatik, erromatarrek Eneas troiarra hartu zuten arbaso mitiko moduan. Etruskoen eraginagatik, erromatarrek beren indar boteretsuei (*numina*) eta gainerako jainkoei pertsona-itxura eman zieten; baita gurtzeko tenpluak eraiki, zeremoniak finkatu, eta aztitza-errituak zabaldu ere.

Numa Pompiliok, Erromako bigarren erregeak, hiriaren hainbat alderdi politiko eta erlijioso antolatu zituen, hala nola, jaiegunak eta lanegunak bereizteko lehenengo egutegia sortu. Horrez gain, apaiz talde hauek sortu zituen:

- _ *Pontifices* izenekoek egutegia urtero antolatu, eta *Vestales* izeneko apaiz-emakumeak aukeratu behar zituzten.
- _ *Vestales* izenekoak emakume patrizioak ziren. Gaztetatik aukeratzen zituzten pontifizeek, Vestaren su sakratua zaintzeko. Birjintasuna gorde behar zuten hogeita hamar urtez, bestela heriotza-zigorra ezartzen zieten.
- _ *Flamines* izenekoak Jupiter, Marte eta Kirino gurtzeaz arduratzen ziren.
- _ *Augures* izenekoek, hegaztien hegaldiari behatuta, jainko-jainkosen borondatea azaltzen zuten.
- _ *Aruspices* izenekoek, sakrifikatutako animalien erraiak irakurrita, etorkizuna igartzen zuten.

Monarkia-garaian, erromatarrek Romulo lehenengo erregea jainkotu zuten, *Quirinus* eta *Iano* izenak eman zizkieten, eta haren omenez tenplua eraiki zuten. Gerra zegoenean, tenplu horren ateak zabalik uzten ziren; bakealdietan, berriz, itxita omen zegoen, bakea hobeto babesteko.

5.2.2 Errepublika-garaia

Errepublika-garaiaren hasieran, erlijioaren antolamenduan ez zen aldaketarik izan: patrizioek osatzen zituzten apaiz-taldeak. K.a. III. mendearen hasieran, ordea, klase arteko borrokari esker, apaiz-karguak betetzeko aukera izatea lortu zuten plebeioek.

Erromak Grezia Handia konkistatu zuenean, greziarren eta erromatarren arteko harremanak indartu egin ziren. Erromak bere jainko-jainkosak eraldatu zituen, greziarrenekin parekatzeko; adibidez, erromatarren Jupiterrek zenbait ezaugarri

bereganatu zituen greziarren Zeusengandik. Olinpoko jainko-jainkosen taldea edo panteoia erromanizatuta, erlijio ofizialaren ardatz nagusia bilakatu zen: haiei eraiki zizkieten tenpluak, eta haien ohorez egin zituzten ospakizunak eta jokoak.

Hauek ziren jainkorik nagusienak:

Erroman Grezian Zeren jainko-jainkosak?

Jupiter	Zeus	aginte gorenaren jainkoa
Junon	Hera	ezkontzaren jainkosa
Minerva	Atenea	adimenaren jainkosa
Merkurio	Hermes	eguzkiaren eta arteen jainkoa
Apolo	Febo	merkataritzaren jainkoa
Diana	Artemisa	ilargiaren eta ehizaren jainkosa
Vulkano	Hefesto	suaren jainkoa
Marte	Ares	gerraren jainkoa
Vesta	Hestia	etxearen jainkosa
Venus	Afrodita	edertasunaren eta maitasunaren jainkosa
Zeres	Demeter	lurraren jainkosa
Neptuno	Poseidon	itsasoaren jainkoa
Bako	Dioniso	antzerkiaren eta ardoaren jainkoa
Pluton	Hades	hildakoen eta infernuetako jainkoa

Erroma hedatu zen neurrian, ohiko gurtzek hasierako garrantzia galdu, eta erritu hutsak bilakatu ziren. Egoera hori mantendu zen, harik eta gizarte-balioek eta erlijioak krisialdia izan arte, errepublikako azken urteetan.

5.2.3 Inperio-garaia

Oktavio Augusto enperadorea gizarte-balioak berreskuratzen eta erlijioa berpizten saiatu zen; horretarako, legeak zein sineskeriak baliatu zituen, erlijio-buru-kargua (*Pontifex Maximus*) bere gain hartuta. Izan ere, Oktavio enperadorea zelarik, badirudi Halley kometa Erromatik ikusteko aukera egon zela; ikuskizun horren aurrean, Oktaviok erromatarrei sinetsarazi omen zien kometa hori Julio Zesar zela eta jainko-jainkosengana zihoala. Horren ondorioz, Julio Zesarri *jainkotiarra* esan zioten erromatarrek, eta Oktaviori, jainkotiarraren semea. Harrezkero, Oktaviori eta hurrengo enperadore guztiei, *Augusto* titulua gehitu zien Senatuak, jainkoei lotuta zeudela adierazteko; enperadorea hil ostean, jainkotu egiten zuten, eta Erromatar Inperioko biztanle guztiek enperadorearen eta estatuaren gurtzan hartu behar zuten parte.

Oktavio hil ondoren, Ekialdetik etorritako hainbat kultu berri zabaldu ziren Erroman; adibidez, astrologiaren jarraitzaileek sinesten zuten astroen kokaguneak gizakien bizitzan eragina zuela. Garrantzi handiagoa izan zuten misterio-gurtzek; misterio horiek jarraitzaileen atsekabeak eta beldurrak asetzen zituzten, zin egiten baitzieten ezen heriotzaren ostean bizitza zegoela eta haiek salbatuko zirela. Misterio-gurtza horiek ezkutuan egiten ziren (hortik *misterio* hitza), eta jarraitzaileek bakarrik zekiten nolakoak ziren zeremoniak eta gurtza-egintzak. Greziatik heldu ziren Demeter, Dioniso eta Zibeles jainko-jainkosen gurtzak; Egiptotik, Isis eta Osiris jainko-jainkosena; Persiatik, Mitra jainkoarena.

5.2.4 Kristautasuna

Misterio-gurtzak handituz zihoazelarik, kristautasuna heldu zen Erromara. Erromako lehenengo kristau-komunitateak 50. urtean azaldu ziren. San Pedrok eta San Paulok aldarrikatu zuten erlijio berria; lehenengo kristau-komunitateak sortzea eta handitzea ekarri zuen horrek.

Erlijio hori monoteista zenez, kristauak ezin zuten gurtu ez Erroma, ezta jainko bihurtutako enperadorea ere; hori dela eta, agintariak kristauak ez zituzten begi onez ikusten, eta erromatar gehienek haur-hilketak eta sorginkeriak leporatzen zizkieten. Horretaz baliatuz, 64. urtean, Erromako sutea ere kristauei egotzi, eta haien aurkako lehenengo jazarpena agindu zuen Neron enperadoreak; San Pedro eta San Paulo hil

zituzten jazarpen hartan, besteak beste. Martirien portaera jarraibidea izan zen, eta kristautasuna apurka-apurka zabaldu zen, behe-mailako jendaratean batez ere.

Mendearen bukaeran, Trajanok, enperadorea zelarik, kristauen aurkako jazarpena arautu zuen. Harrezkero, kristaua izatea delitua izan zen, jainko-jainkosei oparirik ez eskaintzeagatik; halere, bakarrik zigortuko zuten delitu arrunta egiten zuena.

Marko Aurelio eta Komodo enperadoreak zirelarik, kristauen kopurua izugarri handitu zen, jazarpen berriak egon arren.

Komodo hil zenetik Diokleziano enperadorea izan arte, kristauak lasaiago bizi izan ziren, jazarpenik gabe. Garai hartan sortu zen eliza, erakunde gisa: eliza berri horren hierarkia antolatu zuten, eta lehenengo desadostasunak sortu ziren kristau haien artean, iritzi ezberdinak egon ziren-eta.

303an eta 304an, Dioklezianok ediktu batzuk atera zituen aldarrikatzeko ezen kristauak eskubide zibil guztiak galduko zituztela eta liburu sakratu guztiak eman behar zizkietela agintariei. Era berean, ohartarazi zien heriotza-zigorra jasango zuela enperadorearen eta gainerako idoloen gurtza onartzen ez zuenak.

313an, Konstantino enperadoreak erlijio guztietarako gurtza-askatasuna ezarri zuen, Milango ediktuaren bidez. Horrela, kristauen fidelitasuna bereganatu nahi izan zuen, kristauak baitziren ideia batengatik bizia emateko prest zeuden pertsona bakarrak. Hortik aurrera, goi-mailako jendea ere kristautu zen: batzuek pentsatzen zuten kristau izatea abantaila handia izango zela zenbait kargu lortzeko; beste batzuek, ordea, balio moral berriak eta salbazioaren itxaropena aurkitu zituzten kristautasunean.

380an, Teodosio enperadoreak kristatutasuna bultzatu zuen, eta Erromatar Inperioko erlijio ofizialaren maila eman zion. Hasieran, ez zuen paganoen kontra egin; gero, apezpiku kristauak eraginda, erabaki gogorragoak hartu zituen enperadoreak. Paganismoa baztertzeko, kristauak gogor borrokatu arren, ezin izan zituzten zenbait erritu kendu, gizartean ondo errotuta zeuden-eta. Haietako batzuk kristau-errituetan ezkutatu zituzten.

Erritu hauek egon dira bizirik gaur arte:

Otsailaren hamabost egunaren inguruan, erromatarrek *lupercalia* izeneko jaiak ospatzen zituzten, emankortasunaren kultua hain zuzen ere. Kristauak San Valentin jaia bihurtu zuten.

Udako solstizioan suteak egiten ziren, eguzkiari indarra emateko; gero San Juan eguna esan zitzaion egun horri, eta bezperan antzeko errituak egiten ziren.

Azaroaren lehenengo egunetan, zeltek jai bat ospatzen zuten hildakoen ohorez, egun horietan bizien eta hildakoen munduen arteko zubi bat zabaltzen zelakoan. Gaur egun ere, hildakoen eguna ospatzen da.

Abenduaren hogeita bost egunaren inguruan, erromatarrek ospatzen zuten eguzkiaren jaiotza, egun horretan eguzkiaren indarra berreskuratzen hasten baitzen, neguko solstizioaren ostean. Hori dela eta, kristauak Jesusen jaiotza ospatzen omen dute egun horretan.

Paganismoa errotik ezabatu ez bazuten ere, kristautasunaren agintariak gero eta botereretsuagoak izan ziren; izan ere, enperadorea bera elizaren aginpean egotea lortu zuten. Gauzak horrela, 390. urtean, Milango apezpikuak Teodosio enperadorea eskumikatu egin zuen, Tesalonikan egindako sarraskiagatik, eta Teodosiok guztien aurrean egin behar izan zuen penitentzia, barkamena lortu arte. Ekintza horrekin argi geratu zen boterea elizak zeukala, eta ez enperadoreak.

*Hirigintza eta
herri-lanak*

6

6.1 Nolakoak ziren erromatar hiriak?

Dakigunez, Erromako lehenengo biztanleek, mendietan bizi baziren ere, etruriarren eta greziarren eraginagatik haranaren erdian herri enparantza edo foroa eraiki, eta, apurka-apurka, horren inguruan hedatu zuten hiria. Harrezkero, erromatar zibilizazioa hiritarra izan zen, eta beste lurralde bat —batez ere Mediterraneo itsasoaren mendebaldeko lurraldeak— konkistatzen zutenean, bertan sortzen zituzten hiriak, menderatutako herriko biztanleak batzeko, kontrolatzeko eta erromanizatzeko.

Erromatarrek ortogonal izeneko trazadura erabili zuten bai kanpamentu militarretan, bai hiri berrietan. Sistema hori etruriarregandik hartu omen zuten erromatarrek, greziarrek asmatu arren. Etruriarrek bezala, lehenengo, erlijio-erritu baten bidez aukeratzen zuten hiri berria eraikitzeko lekua. Jarraian, perimetroa markatzen zuten, baita elkarrekiko perpendikularrak ziren bi kale nagusiak ere: *decumana* (ardatza) ekialdetik mendebaldera zihoan, eta *cardo* (atearen erroa edo gontza), iparraldetik hegoaldera. Ondoren, hiriaren erdian, bi kale horien elkargunean, foroa eraikitzen zuten. Hori eginda, gainerako kaleak lehenengo bi kale horiekiko paraleloan trazatzen ziren; horrenbestez, etxadi karratuak edo angeluzuzenak eratzen zituzten kaleek. Bukatzeko, hiria harresi batez inguratzen zen; harresiak lau ate handi izaten zituen, ardatz-kaleen muturretan hain zuzen ere.

Erromako hirigileen helburu nagusia biztanleen bizitza erraztea zen; hori dela eta, hainbat azpiegitura eta eraikin sortu zituzten: kaleak zolatu eta espaloiak zabaldu zituzten; *palaestras*, antzokiak, anfiteatroak eta zirkoak eraiki zituzten; arkupeztan estali zituzten kale nagusiak...

Bestalde, eraikuntzako materialei dagokienez, hainbat aurrerapen egin zituzten; esaterako, zementua (*opus caementicium*) asmatu zuten. Harritxoak, karea, area eta ura nahastuta lortzen zuten zementoa; harria bezain iraunkorra zen, eta askozaz malguagoa eta merkeagoa. Horri esker berri zuten eraikuntza.

Hiriaren edertasunaz ere arduratu ziren erromatar hirigileak. Batetik, eraikin nagusiak marmolez estali, eta freskoz eta mosaikoz apaindu zituzten etxebizitzak. Bestetik, estatuak, obeliskoak, kolomak eta garaipen-arkuak eraiki zituzten .

6.2 Etxebizitza: *domusak, villak eta insulak*

Domus izenekoak familia bakarreko etxeak ziren. Landan egonez gero, *villae* izena hartzen zuten. Etxe horiek solairu bakarra izaten zuten, eta espaloiraino heltzen ziren; aurrean ez zeukaten ez lorategirik, ezta soropilik ere. Leiho gutxi zituzten, txikiak eta nahiko goian kokatuta: etxe barruan behar besteko argia izateko, baita berotik eta zaratatik babesteko ere.

Oinplano angeluzuzena zuten, bi aldetan zatituta: aurreko aldea eta atzeko aldea. Alde bakoitzaren erdigunean, lauki formako barruko atari edo patio bana izaten zuten, eta, horren inguruan, hainbat gela egoten ziren.

Aurreko aldean, etxearen sarrera nagusia (*ianua*) egoten zen: bi orri zituen egurrezko ate handia zen. Handik, korridore batetik barruko atarira (*atrium*) pasatzen zen. *Atrium* hori etxeke gelarik garrantzitsuena zen; oso altua eta zabala zen, eta zenbait altzari zituen: brontzezko edo marmolezko mahai bat, kanape bat eta balio handiko gauzak gordetzeko kutxa bat. Zorua mosaikoz apainduta zegoen, edo marmolez estalita; ormak, kolore biziko freskoz.

Atriumaren erdian, sakonera gutxiko urmael karratua (*impluvium*) egoten zen zoruan; erromatarrek hantxe batzen zuten euri-ura (*pluvia*). Izan ere, *atriumeko* teilatuak ez zuten *impluviuma* estaltzen, eta barruko aldera zuen isuria. Orduan, euria egiten zuenean, euri-ura *impluviumean* batu, ur-biltegira eraman hoditeriaren bidez, eta han gordetzen zuten eguneroko zereginetan erabiltzeko.

Atriumaren inguruan, familiak erabiltzen zituen gela nagusiak egoten ziren: etxeke santutegia (*lararium*), logelak (*cubicula*), jantokia (*triclinium*) eta bulegoa (*tablinum*). Gela horiek guztiek ez zuten egurrezko aterik sarreran, irristailu-errezel lodiak baizik. *Larariumean*, etxeke gurtza egiten zen. *Tricliniumean*, afaria eta oturuntzak ospatzen zituzten. *Tablinumean*, ugazabak (*patronus*) bezeroak (*clientes*) hartzen zituen; gela horrek bi sarrera zituen, eta hortik atzeko aldera pasatzen zen.

Atzeko aldean, patioan, arkupez (*peristylum*) inguratutako lorategia egoten zen, iturritz eta estatuaz apaindua; arkupe horien inguruan, beste gela batzuk egoten ziren: sukaldea (*culina*), esklaboen gelak, nekazaritzako lanabesak eta produktuak gordetzeko gelak, komuna (*latrina*) eta bainugela.

Aberatsenek bakarrik izaten zituzten horrelako etxeak; gehienak etxe xumeagoetan bizi ziren. Dendari batzuek gelaren bat hartzen zuten alokairuan, negozio jakin bat (*taberna*) ipintzeko; eta hantxe bizi ziren.

Insulae izeneko eraikinak sei solairuko edo gehiagoko apartamentu-blokeak ziren; bertan, txiroenak bizi ziren alokatutako apartamentu batean (*cenaculum*). Eraikin haietan bizitzea deserosoa zen: eskailera aldapatsu batzuetatik igotzen ziren solairuetara; *cenaculum* horiek txikiak eta argi gutxikoak ziren; ez zuten ez urik ez komunik (egotekotan, denentzat ziren, eta beheko solairuan egoten ziren); barruan zarata handia izaten zen. Halaber, nahiko arriskutsua omen zen han bizitzea: batzuetan, etxeak su hartzen zuen, eta erre.

6.3 Eraikin publikoak

Hiriaren erdian, bi kale nagusien elkargunean, foroa edo herri-enparantza eraikitzen zuten. Hantxe egoten ziren hiriko erlijio-kultuari eta administrazioari lotutako eraikin garrantzitsuenak.

6.3.1 Tenpluak

Erromatar tenplu zaharrenak Greziakoen antzekoak ziren. Tenpluek oinplano angeluzuzena eta bi isurkiko estalkia zeuzkaten, eta *podium* izeneko harmailen gainean egoten ziren. Aurrealdean, kolomez inguratutako atrioa eta erlijio-errituak egiteko aldare bat zeuden. Barrualdean, tenpluaren erdialdean, areto zabala (*cella*) zegoen; bertan, jainkoaren edo jainkosaren estatua ipintzen zuten eta apaizak bakarrik sar zitezkeen hara.

Geroago, tenplu berritzaileagoak ere eraiki zituzten. Horietan, elementu kurbatuak erabili zituzten, hala nola, arkuak, ganga eta kupula.

Erromatar hiri gehienetan, Jupiterren, Junonen eta Minervaren tenplua eraikitzen zen, Erromako jainko-jainkosa garrantzitsuenak baitziren; horrez gain, hiriko biztanleek beren jainko-jainkosak gurtzeko hainbat tenplu egoten ziren.

6.3.2 Eraikin zibilak: merkatuak, basilikak eta kuria

Eraikin zibil garrantzitsuenak hauek ziren: merkatuak, basilikak eta kuria.

Merkatu nagusia foroan egoten zen; era guztietako dendek (*taberna*) osatzen zuten. Erroma oso hiri handia zenez, hainbat merkatu egoten ziren hirian zehar; hala nola, *foro boariuma*, haragia erosteko.

Basilikek oinplano angeluzuzena eta abside izeneko atal erdizirkularra izaten zituzten. Kasetoiduraz edo gangaz estalitako barrunbe handiak ziren; bi edo hiru habearte izaten zituzten. Basiliketan epaiketak, merkataritza-tratuak eta finantza-tratuak egiten ziren. Baina, kristautasuna nagusitu zenean, kristauek beren zeremoniak eta biltzarrak egiteko erabili zituzten eraikin horiek.

Kurian, agintariak biltzen ziren: Erroman, Senatua; probintzietan, Senatuaren funtzioak betetzen zituzten magistratuak. Kuriari atxikita, hiria gobernatzen zuten bi magistratuen bulegoak egoten ziren.

6.4 Bestelakoak

6.4.1 Estolderia

Tarkino Priskok, Erromako bosgarren erregeak, Estolda Handia (*Cloaca Maxima*) eraikitzea agindu zuen. Handik aurrera, erromatarren hiri guztietan eraiki zuten estolderia. Kaleen azpitik zihoazen tunel handiek osatzen zuten estolderia; tunel horiek hiriko harresiak zeharkatu, eta ibaira isurtzen zituzten ur beltzak eta hondakinak.

6.4.2 Akueduktuak

Hiriak urez hornitzeko, erromatarrek akueduktuak eraiki zituzten hainbat lekutan. Kanalizazioaren muturretan, hiriaren aldirietan, ur-biltegi handiak ipintzen zituzten, eta, bertatik, berunezko hodien bitartez, hiriguneko eraikin eta iturrietara banatzen zen ura. Hoditeria ixteko sistema ere bazuten, ura murriztu behar izanez gero.

6.4.3 Galtzadak

Erromako probintzien artean merkantziak eta legioak azkar eramateko sortu zituzten galtzadak. Teknika berezia baten bidez eraiki zituzten, eta aldiro-aldiro konpondu. Gaur egungo errepide sarea bezalakoa zen.

*Latina eta literatura
erromatarren garaian*

7

7.1 Latina

7.1.1 Latinaren bilakaera

Erromako lehenengo urteetan latina hizkuntza txikia eta xumea zen; oso leku gutxitan hitz egiten zen (Erroman eta Italiar penintsulako zenbait tokitan baino ez). Errege etruskoen garaira arte ez zuen alfabetorik izan. Erabilera-eremuari dagokionez, baserritarren hizkuntza zen, ez zuen literatura-lanik, ezta zientzia-lanik ere.

Italiar penintsularen konkistak hizkuntzan izan zuen eragina; adibidez, Grezia Handiko grekoek lexikoa izugarri aberastu zuten. Bestalde, herri menderatuek latina ikasi behar izan zuten, eta tokian tokiko hizkuntza-aldaerak sortu ziren. Hala ere, esan dezakegu Erromako aldaera gailendu zela eta hizkuntza nahiko bateratua izan zela.

Kristo aurreko VI.-I. mendeetan, batez ere azken-azkenetan, latina izugarri garatu zen. Erromak *Mare Nostrum*a konkistatu ahala, latina Europan eta Asian zehar ere hedatu zen, eta hiztunak irabazi zituen Inperioak. Aldi berean, erabilera-eremua zabaldu egin zen: literatura-lanak latinez idatzi ziren, eta, herrien arteko komunikazioan (*lingua franca*), latinak grekoa ordezkatu zuen.

Kristo aurreko I. mendetik aurrera zenbait aldaera ikus daitezke gizarte-klase xeheen hizkuntzan. Horren aztarnak Pompeiako inskripzioetan aurki ditzakegu. Gero eta aldaera gehiago sartu ziren hizkuntzan, harik eta barietate ezberdin bi geratu arte:

- _ Latin jasoia edo literarioa: agirietan, literaturan eta kulturaren transmisioan erabiltzen zen; goi-mailako jendeak erabilitakoa.
- _ Latin arrunta: jendeak (soldaduek, merkatariek...) komunikatzeko erabiltzen zuen hizkuntza; horrek ere tokian tokiko aldaerak izan zitzaizkeen.

Hala ere, esan beharra dago III. mendean eguneroko bizitzarako latin arrunta nagusitu zela. Dena dela, goi-mailako jendeak latin jasoia erabiltzea nahiago zuen.

7.1.2 Latina eta gainerako hizkuntzak

Erromatarrek konkistatutako herrien bizimodua erabat aldatu zuten; adibidez, latina ezarri zuten, eta horrek hainbat hizkuntza galtzea ekarri zuen. Zenbait lekutan konkista hori ez zen osorik bete, eta herri batzuek ez zuten beren hizkuntza galdu; nolahi ere,

herri horientzat ere latina jakitea ezinbestekoa izan zen merkataritza-harremanak edo trukeak egiteko.

Hispaniar penintsulan, euskara izan ezik, gainerako hizkuntza guztiak galdu ziren. Euskal Herrian, batez ere eremu erromanizatuenetan, euskara galdu ez, baina latinaren eragina nabaria izan zen: nekazari eta artzain euskaldunek euskaraz hitz egiten jarraitu zuten, nahiz eta latinetik hitz berri ugari hartu; Arabako eta Nafarroako hegoaldeko merkatariei ezinbestekoa egin zitzairen latina ikastea erromatarrekin zituzten harremanetan probetxu hobea ateratzeko; horren ondorioz, elebidun bihurtu ziren.

Inperioa gainbeheratzeak latinaren atzerakada ekarri zuen. Apurka-apurka tokian tokiko latin arruntetik hizkuntza erromanikoak sortu ziren. Latinaren erabilera-eremua murriztu egin zen. VIII. menderako, latina ez zen ia erabiltzen: elizkizunetan, literaturan eta ezagueren transmisioan baino ez.

7.1.3 Hizkuntza-maileguak

Esan bezala, erromatarrekin harramanak izan zituzten herri guztiek hitzak hartu zituzten maileguan. Latinetik hitzak hartzean, herri horiek ez zituzten ahoskatzen erromatarrek bezala: beren ahoskerara moldatzen zituzten, eta, horren ondorioz, bilakaera fonetikoak gertatu zen. Oro har, antzeko fonemak zituzten hitzek bilakaera berdintsua izaten zuten.

Ikertzaileek bilakaera fonetiko horren bideak ikasi, eta lege batzuen bidez azaldu dituzte. Euskararen kasuan, hasierako herskari ahoskabeak (*p, t, k*) ahostun (*b, d, g*) bihurtzen dira (*pacem*>bake; *turrem*>dorre; *causa*>gauza; *cellam*>gela); baina batzuetan herskari ahoskabe hori galdu egiten da (*caueam*> (h)abia; *post*>oste). Era berean, jakinarazi digute ezen, bilakaera fonetikoaz gain, maileguek esanahi-aldaketa ere izan zezaketela. Adibidez, *causa* hitzak latinez *zergatia* esanahi zuen, baina euskaldunek *objektu* adierazteko mailegatu zuten.

Mailegatutako horiek berrikuntzekin lotuta zeuden gehienbat. Berrikuntzek lexiko berria ekarri zuten zenbait arlotan, hala nola: nekazaritzan, abelazkuntzan, eraikuntzan, metalurgian eta abarretan.

Inperio-garaiaren azken urteetan, kristautasuna Inperioko erlijio ofiziala bihurtu zen; Inperioa gainbeheratu zenean, kristautasunak latinari eutsi zion, eta hizkuntza hori inposatzeko jokabidea hartu zuen Elizak. Hori dela eta, geroago ere hizkuntzek latinaren hitzak mailegatu jarraitu zuten, baina kasu guztietan ezin da zehaztu noiz.

7.2 Literatura

7.2.1 Literatura-aroak

Lehenengo literatura-lanak ahozkoak izan ziren. Grezia Handia konkistatzeak (K.a. III. mendea) eragin handia izan zuen erlijioan, eraikuntzan, hizkuntzan...; baita literaturan ere. Izan ere, Mediterraneo osoan zehar Grezia oso ospetsua zenez, erromatarrek greziar kultura ezagutzen bazuten ere, liluratuta geratu ziren liberto greziar batek *Odisea* epopeia greziarra latinera itzuli zuenean. Itzulpen hori izan zen latinezko literatura idatziaren hasiera. Handik aurrera, erromatar ikasiak greziar literatura bereganatzen eta latinera egokitzen hasiko ziren.

Adituen ustez, literaturaren bilakaeran lau aro bereiz daitezke:

Aro arkaikoa (K.a. III.-I. mendeak). Lehenengo idazle erromatar ospetsuek greziarrendik hartu zuten eredua, eta apurka-apurka erromatar moldeetara ekarri zuten.

Aro klasikoa edo Urrezko Aroa (K.a. 81-K.o. 14). Zizeronek bere lehenengo diskurtsoa esan zuenetik Augusto hil arteko aroa. Esan daiteke garai horretan bukatu zela ikaste-prozesua, eta erromatar idazlerik hoberenak ordukoak direla.

Aro klasiko ondokoa edo Zilarrezko Aroa (I.-II. mendeak). Literaturaren kalitateak behera egin bazuen ere, probintzietan idazle eta lan berriak sortu ziren.

Gainbeherako Aroa edo Berant Aroa (II.-V. mendeak). Erromaren botereak gainbera egin zuen, batez ere III. mendeko krisialditik, eta, horrekin batera, literaturarekiko ardura. Garai horretan kristau idazleak aipatu behar ditugu gehienbat.

7.2.2 Egile eta lan nagusiak

Poesia

Virgilio, Horazio eta Ovidio izan dira literaturan betiko geratu diren olerkari famatuena, zalantzarik gabe.

Virgilio Oktavio enperadorearen adiskidea izan zen, eta haren babesaren lortu zuen. Virgilioren lanik ospetsuenak hauek dira: *Bucolica* (*Unai-kantak*), *Georgica* (*Alor-kantak*) eta *Eneida*. Virgilioren lan horien helburua Augustori bere politikan laguntzea

izan zen. Lehenengo bietan, Virgiliok erromatarrak animatzen zituen nekazaritzatik eta abelazkuntzatik bizi zitezen; horretarako, baserritarren bizitzaren inguruko deskribapen idealizatua eman zuen. Hirugarrenean, berriz, Erromari iragan mitikoa eman zion.

Eneida Virgilioren lanik onena da; literatura-lan hori idazteko, bere bizitzako azken hamar urteak eman zituen Virgiliok. Lana bi zatitan banatzen da: lehenengoan, Eneasek Mediterraneoan zehar egindako bidaia kontatzen da; bigarreanean, Lazio eskualdean gertatutakoa (Eneas Lavinia latindar printsesarekin ezkondu zen). *Eneida* greziar epopeietan oinarrituta egon arren, bertan hainbat elementu berri agertu ziren: profezia erabiltzea, esaterako. Izan ere, Virgiliok istorioan hainbat profezia sartu zituen, Oktavio eta haren leinukoak goraiatzeko eta Erromaren historiaren gertakari garrantzitsuenak aipatzeko.

Horazio. Oktaviok babestutako idazleen taldekide izan zen. *Odak* izeneko lau olerki-liburu idatzi zituen. Horazioren poemek haren bizitzarekin eta bizi zuen une historikoarekin lotura dute. Halere, ideia batzuk hainbat literatura-arotan errepikatu izan dira; ideia horiei *topiko* esaten diegu. Hauxek dira ezagunenak:

- _ *Carpe diem* (goza ezazu gaurko eguna). Mementoa bizi behar dugu, denbora arin pasatzen baita.
- _ *Beatus ille* (zoriontsua hura). Bizimodu lasaiak zoriontasuna emango digu, eta hiriko bizimoduak, kezka)
- _ *Fortuna mutabilis* (zoria edo fortuna aldatu egiten da). Zoria aldakorra denez, nork bere baitan bilatu behar du zoriona.
- _ *Ubi sunt?* (non daude orain?). Heriotzak guztiak berdintzen ditu, eta inork ezin du saihestu heriotza.
- _ *Aurea mediocritas* (urrezko erdibidea). Norberak duenarekin zoriontsua izan behar du, aberasteko nahia baztertuta.

Ovidio. Abokatu-lanetan hasi zen, baina handik gutxira lanbide hori utzi, eta poesia idazteari ekin zion. Poetaren libururik ospetsuenak hauek izan ziren: *Metamorfosis*, *Ars amandi* (*Maitatzearen artea*) eta *Remedia amoris* (*Maitasunaren konponbideak*).

Lehenengoan, Ovidiok berrehun eta berrogeita hamar istorio mitologiko (250) kontatu zituen. Istorio guztietan eraldaketa jakin bat gertatzen da; adibidez, Dafne zuhaitz

bihurtzen da, Apolorengandik ihes egiten duenean. Adituen ustez, antzinateko kontakizun mitikoen bildumarik ederrena da.

Beste bietan maitasunari buruz hitz egin zuen Ovidiok; maitaleei aholkuak eman zizkien beren nahiak lortzeko. Lan horietan emandako ikuspuntua eta Oktaviok berreskuratu nahi zituen balioak ez zetozen bat; horregatik, Ovidio begitan hartuta zeukan Oktaviok. Azkenean, Ovidio Itsaso Beltzeko inguruetara erbesteratu zuen Oktaviok, betiko.

Antzerkia

Erromatar antzerkia antzinakoa zen arren, idazlerik ospetsuenek Greziako antzerkia hartu zuten eredutzat. Greziar antzerki horrek genero ugari izan zituen, erlijioan eta errituetan oinarrituta. Erromatarrek genero horien artean, komedia berria hartu zuten eredutzat gehienbat. Komedia-eredu horretan gizartearen akatsak eta arazoak islatzen ziren, ikusleari pentsarazteko eta barre eragiteko. Erromatarrek nahiago izan zuten pertsonaien izenak, jantziak eta lekuak greziarrak izatea; agian antzezlanetan beren burua islatuta ez ikustearren. Halere, pertsonaien izaera, keinuak, elkarriketak, hitz-jokoak... erromanizatu behar izan zituzten egileek, antzezlanak ikusleen gustukoak izan zitezten.

Erromatarrek komediak nahiago izan zituzten tragediak baino. Komediagilerik ospetsuena Plauto izan zen.

Plauto (K.a. 254-184). Bere komedietan garai hartako gizarte-giroa, kezka eta balio moralak islatu zituen, ezin hobeto islatu ere; aipagarrienak hauxek dira: ohiturei errespetua, maitasun-grinarekiko mesfindantza, herritarren betebeharrak, herri-harrotasuna eta greziarren bizimoduari kritika.

Lan horien argumentua egiteko, jatorrizko lan greziarren zatiak nahastu zituen Plautok. Pertsonaia lauak erabili zituen, gehienak erdi mailakoak ziren: agure zuhurra, bizizalea, soldadu harroputza, esklaboak... Plautoren komedia guztietan esklaboak garrantzi handiko pertsonaiak ziren, protagonistak ez baziren ere. Izan ere, esklaboek intriga antolatu, eta arazoak konpondu egiten zituzten; agerraldi barregarrietan ere hartzen zuten parte. Adituen ustez, Plautok oso ondo menderatzen zituen *vis comica* (indar barre-eragilea) eta hizkuntza-erregistro guztiak (jasoa, baita herri-hizkera ere); hori dela eta, ikusleen estimua eta arrakasta lortu zuen.

Prosa: historia, oratoria, eleberria

Historia

Julio Zesar (K.a. 101-44). Zesarrek idatzitako bi lan gorde dira: *Galiako Gerra* eta *Gerra Zibila*. Lehen lana, Galiaren konkistari buruzko iruzkinek osatu zuten; Zesarrek bere burua zuritu eta goratu nahi izan zuen lan horretan. Bigarrena, Ponpeioren eta Senatuaren aurkako gerra zibilari buruzkoa izan zen; horretan, Zesarrek kanpaina militarrek eta pentsaera politikoak txandaka kontatu zituen.

Tito Livio (K.a. 59-K.o. 17). Bizitza osoa eman zuen Erromaren historia orokorra idazten, hau da, Erroma sortu zenetik Oktavio enperadorearen garaira arteko historia, 142 liburutan bildua. Lan horrek *Ab urbe condita* du izenburua. Informazio-iturririk onena da Erromaren historiako hasierako mendeen berri izateko.

Oratoria

Marko Tulio Zizeron (K.a. 106-43). Erretorika eta Oratoria ikasi zuen Erroman eta Grezian. Abokatu egin zuen lan, eta karrera politikoa egin. Epaiaketetan eta Senatuan egindako hitzaldi batzuk argitaratu zituen, baita tratatu politikoak eta filosofikoak ere. Zizeron latinezko hizlari nagusia omen da: adituek esaten dute idazle horrekin hasten dela urrezko aroa.

Eleberria

Augusto hil ondoren, balio-krisia egon zen, eta idazleek eleberria erabili zuten, Inperioko arazoak azaltzeko. Eleberriaren ezaugarri nagusiak hauek izan ziren: pertsonaiak landuak ziren, narratzailea lehenengo pertsonan zegoen, eta argumentuan historia-marko eta narrazio laburrak txandakatzen ziren.

Idazlerik ospetsuena Apuleio (125-180) izan zen. *Metamorfosia edo urrezko astoa* da haren lan nagusia. Nobelaren argumentua hau da: Luzio gaztea asto bihurtu zen sorginkeria baten bidez, eta, bere giza irudia berreskuratzeko, konponbide baten bila

ibili zen hainbat gizarte-giroan. Aitzakia horrekin gizartearen deskribapen zorrotza egin zuen Apuleiok.

Bibliografia **8**

Liburuak

GARCÍA DE CORTÁZAR, Fernando: *Atlas de la Historia de España*, Planeta Historia y Sociedad, Madril, 2005.

HERRERO LLORENTE, Victor: *Diccionario de expresiones y frases latinas*, Gredos, Madril, 1992.

IZENGABEA: *Atlas Ilustrado de la Antigua Roma. De los orígenes a la caída del imperio*, Susaeta ediciones S.A., Madril.

IZENGABEA: *Hispania Romana. Conquista, Sociedad y Cultura*. Historia de España. 2. libk., Biblioteca El Mundo. (Espasa-Calpe), Madril, 2004.

IZENGABEA: *Roma. Historia Universal* 6. lib., Salvat, Madril, 2004.

KORTA, Mertxe; MARTINEZ LIZARDUY, Unai: *Iraganeko Zibilizazioen enigmak*, Gaiak Argitaldaria, Donostia, 2003.

PASTOR ARTIGUES, Bárbara: *Cultura Clásica 3º ESO*, Anaya, Madril, 2004.

PERICOT GARCÍA, Luis; BALLESTER ESCALAS, Rafael: *Historia de Roma*, Montaner y Simon S.A., Bartzelona, 1978.

ROBERTS, John M.: *De la prehistoria al 1500. Historia Universal Ilustrada*. 1. lib. Debate, Madril, 1993.

SEGURA MUNGUIA, Santiago; ETXEBARRIA AYESTA, Juan M.: *Del Latín al euskara/Latinetik, euskarara*. Universidad de Deusto, Bilbao, 2001.

SEGURA MUNGUIA, Santiago: *Diccionario etimológico latino-español*, Ediciones Generales Anaya, Madril, 1985.

SEGURA MUNGUIA, Santiago: *Latín. Manual de orientación universitaria*, Grupo Anaya, Madril, 1991.

ZENBAITEN ARTEAN: *Cultura clásica 2 ciclo Eso*, Santillana, Madril, 1995.

ZENBAITEN ARTEAN: *Cultura clásica 2 ciclo Eso*, Santillana, Madril, 2004.

Artikuluak

CORTADELLA I MORRAL, Jordi: “La tragedia de los Idus de Marzo, el asesinato de Julio César”, in *Historia. National Geographic*, 15 (2005), 56-67.

MONGE MARIGORTA, José Antonio: “La forja de un imperio, Roma Conquista Italia”, in *Historia. National Geographic*, 29 (2006), 72-83.

POSADAS SÁNCHEZ, Juan Luis: “*El asesinato de Julio César, la venganza de sus herederos*”, in *Historia. National Geographic*, 57 (2008), 64-75.

POSTEGUILLO, Santiago: “Hispania antes de los romanos. Pocos, brutos y mal avenidos”, in *La Hispania Romana. Muy Historia*. 20 (2008), 26-31.

STORCH, Jacobo: “La conquista de Hispania”, in *La Hispania Romana. Muy Historia*. 20 (2008), 41-55.

TORRES ESBARRANCH, Juan José: “La caída del coloso de occidente, el fin del Imperio Romano”, in *Historia. National Geographic*, 16 (2005), 60-70 orr.

Web-orriak

www.artehistoria.com

<http://recursos.cnice.mec.es/latingriego/Palladium/comun/eshome.php>

<http://www1.euskadi.net/harluxet>

www.imperivm.org/articulos/primer-triunvirato.html

<http://usuarios.lycos.es/pacolorente/TeatrosRomanos/Teatroromano01.htm>

DVDak eta bideoak

La República de Roma. El Gran Imperio Romano. 1 atala Canal de Historia, 2001

Del Caos al Orden. Roma. El Imperio Romano en el Siglo Primero.1 atala. Goldfarb and Koval Productions, 2001.

La maquinaria de guerra Romana. Canal de Historia, 2001.

Memoria España 3, 4 eta 5 atala. RTVE, 2004.

El sitio de Numancia TVE www.eduvlog.org/2008/.../el-sitio-de-numancia.html